

3. Ekonomia eta lan politika



IZENBURUA: Eztabaida feministarako kaierak:
III. Ekonomia eta lan politika

EGILEA: Gipuzkoako Foru Aldundia
Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Organoa

AUTOREAK: Amaia Pérez Orozco
Silvia López Gil
Rocío Lleó Fernandez
Cristina Santillan Idoate

MAKETAZIOA: Imanol Tapia

DATA: 2012ko apirila

ALE-ZENBAKIA: 700

INPRIMAKETA: Gipuzkoako Foru Inprimategia

ISBN: 978-84-7907-733-4

DEPÓSITO LEGAL: SS-972-2015

EZTABAIDA FEMINISTARAKO KAIERAK

III. Ekonomia eta lan politika

Autoreak

Amaia Pérez Orozco
Silvia López Gil
Rocío Lleó Fernandez
Cristina Santillan Idoate



Gipuzkoako Foru Aldundia

Diputatu Nagusia

Emakumeen eta Gizonen Bedintasunerako Órganoa
Órgano para la Igualdad de Mujeres y Hombres

AURKIBIDEA

Aurkezpena.....	7
1. Hitzaurrea	9
2. Ekonomiaren begirada feministak versus begirada ekonomiko konbentzionala: eztabaidak	11
2.1. Ekonomia merkatuak baina zerbait gehiago da	13
2.2. Ekonomiak ez du ongi funtzionatzen, herri erakundeak esku hartu behar dute.....	16
2.3. Genero desberdintasunaren arazoaren jatorria eta lanaren sexuaren araberako banaketan gauzatzea: zer egin lanarekin?	18
2.4. Genero-neutraltasun eza prozesu ekonomikoetan.....	21
2.5. Sistema ekonomikoaren protagonista den subjektua.....	24
2.6. Laburbilduz	25
3. Jarrera politiko eta kontzeptuala	29
3.1. Ekonomia merkatuak baina zerbait gehiago da	29
3.2. Ekonomiak ez du ongi funtzionatzen, herri erakundeak esku hartu behar dute.....	31
3.3. Lanaren sexuaren araberako banaketa: zer egin lanarekin?.....	33
3.4. Genero-neutraltasun eza prozesu ekonomikoetan.....	34
3.5. Sistema ekonomikoaren protagonista den subjektua.....	35
3.6. Laburbilduz	37
4. Testuinguruaren analisia	41
4.1. Begirada zabaldu bat ekonomiari: galdera irekiak.....	42
4.2. Lanen banaketa desorekatua	45
4.3. Lan-merkatuko desberdintasunak.....	49
4.4. Migrazio-estatusak eragindako zaurgarritasuna.....	51
4.5. Merkatuaren eta merkatua ez denaren arteko elkarreagina.....	52
4.6. Baliabideetara heltzea.....	54
5. II. Berdintasun Planerako iradokitzen diren esku-hartze estrategiak.	57
5.1. Zerga-politika	57

5.2. Lan-merkatua	63
5.3. Baliabideetara heltzea.....	72
6. Bibliografia	75
6.1. Ekonomia feminista	75
6.2. Genero joerak politika ekonomietan	75
6.3. Lan / Lanak.....	76
6.4. Lan-merkatua	76
6.5. Krisialdia	77
6.6. Zorra, murrizketak eta doiketak.....	78
6.7. Genero-sentiberatasuna duten aurrekontuak.....	78
6.8. Proposamen politikoak	79
7. Baliabideak sarean.....	80

AURKEZPENA

Jarraian aurkezten den koaderno hiru dokumentutatik hirugarrena da. Berdintasuneko teknikariekin eta Gipuzkoako mugimendu feministarekin eta emakumeen elkarteekin irekitako hausnarketa prozesuaren esparruan egindakoak dira, *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Foru Plana* gauzatzean.

Bilduma hau osatzen duten hiru koaderno bidez, hausnarketa sustatu nahi da emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak benetan garatzea eragiten duten gai garrantzitsuen inguruan:

- Bizitzaren iraunkortasuna
- Zaintza lana
- Prozesu ekonomikoak

Dokumentu irekiak dira, oinarrizko helburua dutenak eztabaida sortzea eta errealitatea aztertzea ikuspegi feministatik, gizartearen sentsibilizazioan eta politika publikoen diseinuan sakontzeko asmoz, benetako aldaketa soziala izaten laguntzeko emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde.

Nahiz eta 2012ko apirilean eginak izan, *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Foru Plana* gauzatzeko prozesuaren esparruan, ulertzen dugu koaderno horiek hedatzea interesgarria eta baliagarria izan daitekeela hausnarketa prozesuak irekitzeko beste testuinguru batzuetan, eta, horregatik, egokia iruditu zaigu banatzea.

Espero dugu interesgarriak izatea, Gipuzkoako Foru Aldundiak bezala, beren eraginpeko eremuetan gizarte bidezkoago eta berdintasun handiago bat lortzen lagundu nahi dutenentzat.

EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ORGANOA

1. HITZAURREA

Ekonomia eremu gakoa da, diskurtsoaren eta errealitatearen arteko el-karreragina bertan ikusten baita. Ekonomiaren nozioa zati bakarrera (monetizatutako horretara) mugatu den heinean, eta gizartearekin lotutako horretaz banandu den heinean, ekonomia.- eta lan-politika eraikitzeke moduan ondorioak izan ditu: Batetik, gizarte-politikatik bereizita geratzen da eta, bestetik, merkatuarekin lotutako dimentsioei soilik heltzen die (hor lan-politika eta, beste ardatzean jorratu ditugun zaintza-politika, gauza desberdinak dira). Horretaz gainera, publikoa den hori, pribatua/etxekoa den horretatik bereizita dagoen maila bat bezala aintzatesten da, bere ekintzak muga horiek modu ez esplizituan barreiatzen baditu ere. Horren ildotik, abiapuntua tentsio bat dela esan dezakegu: konbentzionalki ekonomia- eta lan-politika gisa ulertzen den horri heltzen diogu, baina ekonomiaren ikuspegi hori bera mugimendu feministatik kritikatu izan denaz ohartun, genero-ondorio maltzurak baititu. Eta ardatz hau bizitzaren iraunkortasunaren ardatzetik (ekonomiaren amaierako helburua litzateke bizitzaren iraunkortasunerako beharrezkoak diren baliabideak jartzea) eta zainketen ardatzetik (berez ekonomia baitira, beste hainbat gauzaz gainera, eta denbora guztian monetizatutako mailekin elkarreraginean baitaude) bereizterik ez dagoela jakinda. Hala eta guztiz ere, ardatz bilakatzea *erdiko pauso* bat da, berriz ere agerian jartzen du II. Planaren izaera, *trantsiziozko plana* izateko asmoa baitu.

2. EKONOMIAREN BEGIRADA FEMINISTAK VERSUS BEGIRADA EKONOMIKO KONBENTZIONALA: EZTABAIDAK

Gaiaren inguruan dauden eztabaidak zabaldu aurretik, gertakizuna deskribatu behar da, kontakizungintzan *istorioaren gorputza* bezala ulertzen dena, beti istorioa korapilatzen duen arazo edo bat ez etortze batekin hasten baita. Kasu honetan, istorioa ekonomia litzateke, eta bat ez etortze hori ikuspegi feministak ekarriko luke, kontatu eta sinestarazi diguten ekonomia ezbaian jartzen duenean.

Ekonomia eta ekonomia-politikak beti egon dira eta, argi eta garbi, egun maskulinoa den horren mende daude, politika neoliberalaren euskarri teorikoa den paradigma neoklasikoaren kontrol hegemonikopean. Aipatu paradigmak ekonomia merkatuetara murrizten du eta ekonomia banako eta markatu gabeko eragileen (ez daude markatuta ez gorputzagatik, sexuagatik edo generoagatik edo beste edozein aldagai sozialengatik) arteko trukerako eremu libre gisa ulertzen du; aske dago, beraz, botere-harremanez eta herri erakundeak hazkundearen oinarri den merkatu askatasuna bermatzera mugatu behar dira. Paradigma horrek, halaber, soilik ordaintzen diren lanak aitortzen ditu eta alboratu egiten ditu genero-harremanak, ekonomian garrantzirik ez duten harreman gisa ikusten baititu. Horri guztiari gehitu behar zaizkio ikuspegi teknifikatua eta tresneria analitiko eta kontzeptual korapilatsua, ekonomia erantzun teknikoak (eta ez politikoak) ematen dituzten adituei dagokien *gauza* dela pentsaraziz. Eta horrek zilegitasuna ematen dio ustez teknokratak diren gobernuen inposizioari, ekonomia-politika kudea dezaten (hori ere politika ez balitz bezala). Hori horrela, ia ezinezkoa dirudi egoera horretan mugimendu feministetatik adierazten diren arazoak sartzea.

Dena den, mugimendu feministetatik, bereziki XX. mendeko 60-70eko hamarkadetatik aurrera, ekonomiarekin lotutako gaiak heldu zaie. Hasiera batean mugimenduak bultzatu eta piztu bazituen gai ekonomikoekin lo-

tutako eztabaidak eta proposamenak, pixkanaka, akademiak ere aurrera egin du gai honetan. Pentsa liteke mugimenduak nolabaiteko utzikeria egin duela, ikuspegi ekonomiko berezi bat unibertsitateetan ezarri denean, *ekonomia feministaren* ikuspegia ezarri denean. Horren ildotik, mugimendu feministak mugimendutik at dauden bi zailtasunei egin behar die aurre ekonomia-eta lan-politiken gaian ahots kritikoa izateari dagokionez: hegemonikoki eguneroko bizitzaren ekonomia gisa ulertzen den horretaz urrun-tzea (ekonomia gero eta gutxiago da *oikos-nomia*... merkatuen linbora joaten da eta, gero eta gehiago, finantza-merkatuenera, jendearen bizitza zehatzaren are urrunago dauden horren linbora) eta gero eta teknikoagoa eta ez hain politikoa da. Tresneria analitikoa korapilatua eta teknifikatu egin da; eta tresneria politikoarekin ere gauza bera gertatzen da.

Horretaz gainera, barneko zailtasun bati ere egin behar dio aurre: feminismoaren zatiketa, *gauzez*, materialtasunaz arduratzen den horren artean (lanari, aberastasunari, eskubide sozialei eta ekonomikoei buruz hitz egiten duen feminismo klasikoagoa) eta *hitzetan*, dimentsio sinbolikoan arreta jartzen duen horren artean (lengoaia, identitateak, subjektibitateak, sexualtasuna, eskubide kulturalak eta sexualak). Nancy Fraserrek banaketaren eta aitortzaren bidegabekeriak bereizten ditu¹, eta horrek bidegabekeriaren dimentsioak argitzen laguntzen du, mugimendu feministek horiek zatikatuta tratatu izanari buruz hausnartzen laguntzen du; hala ere, aldi berean, eta egileak berak ahaleginak egin baditu ere, horrek zaildu egiten du bi bidegabekeria motak integratzea.² Butlerrek³ biak lotuta ikustea proposatzen du, baina hori etorkizunera begira

1 Lehenengo motak "gizarte kapitalistan lanaren eta boterearen esplotatzeko moduarekin" du zerikusia, bigarrenak bizitza sozialean erabateko parte-hartzea izateko estatutuaren ukapenarekin du zerikusia, "erakundetutako interpretazio- eta ebaluazio-ereduen ondoriozkoa" den horrekin. (Nancy Fraser, 1998, "Heterosexism, Misrecognition and Capitalism: A Response to Judith Butler", *New Left Review*, 228, 140-50. orr.).

2 Fraserrek generoa ikuspegi banatzailetik (politikoa eta ekonomikoa) eta aitortzaren ikuspegitik (kulturala eta diskurtsiboa) begiratu beharreko errealitate bifokala gisa azaltzen du, bi ikuspegiak hein batean independente direla. Horren ondorioz, politika feministak bi dimentsio izan behar ditu: ez dago birbanaketarik aitortzarik gabe, eta alderantziz. Fraser, Nancy (2002), *Política feminista en la era del reconocimiento. Una aproximación bidimensional a la justicia de género*, PRIGEPP.

3 Butlerrek argudiatzen du ezin direla bi bidegabekeria mota bereiztu, maila kulturean gordeta dauden horiek, berez, materialak ere direlako (Judith Butler, 1998, "Marxism and the Merely Cultural", *New Left Review*, 227, 33-44.orr.).

egiten den adierazpen edo esku-hartzerako agenda bat da, oraindik ez gara zehatz-mehatz aritu elkarren artean nola eratzen diren ikusteari dagokionez.

Zailtasun horiek gainditzeko, hainbat mugimendu dira beharrezkoak:

1. Ekonomiari errespetua galtzea: berriz eguneroko bizitzara gerturatzea (bizitzaren iraunkortasunaren ardatzetik helduko zaio horri) eta politikara gerturatzea (Planaren oinarritzko ideia).
2. Ekonomia konbentzionalean alfabetatzea: oinarritzko kontzeptuak, hain zuzen ere, errespetua eta beldurra galtzeko.
3. Hainbat mugimendu feministatik hurbiltzea: *klasikoenak*, sindikala, poskoloniala eta transago dena (nolabait deitzearren)
4. Mugimendu feminista/erakundeetako feminismoa/feminismo akademikoa hirukoaren loturak indartzea.

Aipatu beharra dago, zailtasun horiek guztiak egon arren, azken urteotan eta, are gehiago, emakumeentzat ondorio sakonak izan dituzten krisialdiek eraginda, gai ekonomikoak lekua hartzen ari direla mugimendu feministen agendatan (oraindik prozesu hori hasi soilik egin bada ere). Aurrrerago ikusiko dugun bezala, mugimendu feministetatik dauden ikuspegi eta aldarrikapen ekonomikoak oso anitzak dira, feminismoa bera bezalaxe, baina denek dute abiapuntu komunak: gizon eta emakumeen artean dauden desberdintasunak ekonomikoak ere badirela aitortzea, hain zuzen ere. Baina: zein ekonomiaz eta zein desberdintasunaz hitz egiten dugu mugimendu feministetatik?

Jarraian ekonomiaren ikuspegi feminista batek berezko dituen abiapuntu anitzak azalduko ditugu. Horietako bakoitzean, oinarri komuna azaldu ostean, alderdi bakoitzean sakondu ahala, mugimendu feministen baitan sortzen diren eztabaidak azalduko ditugu.

2.1. Ekonomia merkatuak baino zerbait gehiago da

Feminismoetatik **ekonomiaren eta lanaren ikuspegi zabal(du)a** hartzen da abiapuntutzat; batetik, ekoizpenaren eta ugalketaren eremuak, maila berean, ekonomikoak direla eta elkarren artean lotutakoak direla ulertuz. Ekonomiak moneta-fluxuak gainditzeko; beharrak asetzeko beharrezkoak diren baliabideak sortzeko prozesuek osatzen dute ekonomia. Horiek,

gutxienez, hiru esparru hartzen dituzte barne: sektore publikoa⁴, merkatuak (enpresak) eta etxeak (ez baitira kontsumo-unitate soilik, ondasun eta zerbitzu ekoizleak ere badira). Bestalde, lana ez da mugatzen ordaindutako lanera, aldiz, ordaindu gabeko lana (etxeko lana, ugalketa lana, eguneroko bizitzaren alderdi materiala, txerazkoa eta harremanekin lotutako alderdiak kudeatzeko lana, azaltzen duen korrante feministaren arabera alda daitekeena) funtsezkoa da sistema (ikuspegi bateratzaileen arabera) edo bizitza (ikuspegi haustaileen arabera) mantendu ahal izateko. Monetizatu gabeko mailak ekonomiko ez bezala sailkatu izana, lotuta egon da emakumeen egiten dituzten jardueri modu sistematikoan balioa kentzearekin, eta esparru publikoaren eta pribatua/etxekoaren artean egiten den zatiketarekin; horrek ahalbidetu du emakumeak subjektu pasibo, mendeko eta ez aktibo gisa ikustea. Azkenik, dirua ardatz gisa hartzea kaltegarria da emakumeentzat, baina, gainera, horrek kanpo uzten ditu ongizatea sortzen duten benetako prozesuak.

Abiapuntu hori ikuspegi feminista guztiek komunean badute ere, eztabaida ekonomiaren **ikuspegi zabal** edo zabaldu hori **nolakoan izan behar den** zehazteko orduan sortzen da. Aukera bat gehitzea (integratzea) da: estatuaren eta merkatuaren maila monetizatu horiei etxeetako maila ez monetizatu hori gehitzea; ekoizpenari ugalketa gehitzen diogu; ordaindutako lanari, ordaindu gabea. Doan egiten diren jarduera multzoan lana zeri esan diezaiokegunaren inguruan eztabaidak zabalik dauden arren, hirugarren baten esku utz daitezkeen horiek aintzatesten dira lan gisa (horri hirugarren alderdiaren irizpidea esaten zaio). Ikuspegi horrek ez ditu ezbaian jartzen merkatuen balio eta esanahi ekonomikoa; are gehiago, ikuspegi horren arabera horiek mamitzen dute normaltasun ekonomikoa, horiek dira, azken batean, azken erreferentea. Hazkunde ekonomikoa (merkatuaren hedapena) eta ordaindutako lana, berez, onak dira. Kanpokoa ekonomia da merkatuan egiten denaren antzekoa delako (esaterako, beste baten esku utzi daiteke). Etxeetako ekoizpena monetaz zenbatzea zeregin garrantzitsu bat da.

Beste aukera bat da osotasunaren ikuspegia berriz planteatzea, ekonomiak nola funtzionatzen duen ulertzeko, **bizitzaren iraunkortasunerako**

⁴ Sektore publiko, herri erakunde edo estatu gisa aipatuko dugu; lurralde maila eta eskumen maila desberdinak dituzten administrazioaz ari garela ulertu behar da.

aukera egon dadin, baldintzak ezartzen dituen zirkuitu integratua baita. Ondasunak eta zerbitzuak sortzea eta pertsonen ugalketa prozesu bera direla ulertzen da. Eta, hain zuzen, hori da ulertu behar dugun zeharkako gertakaria: bizitzaren ugalketa edo birsortzea. Galdera da ea zein maila eta erakunderen bitartez kudeatzen diren baliabideak eta zein logika duen horietako bakoitzak (beharrak aitortzeko zein modu erabiltzen diren, zein interes duten, zein modutan banatzen eta balioesten diren lanak). Enpresa kapitalistek metaketaren logika jarraitzen dute eta ekonomia sozialak interes orokorra bilatzen du, ustez; etxeetan ongizateetik gertuago dagoen logika jarraitzen da (hemen zabaltzen da bizitzaren iraunkortasunaren logika ote denaren edo zainketaren etika erreakzionarioaren logika ote denaren inguruko eztabaida). Estatuak birbanaketa bilatzen du (gakoa da: birbanaketa bai, baina norentzat?). Ikuspegi horren arabera, merkatuak ez dira naturalizatzen, baizik eta baliabideak kudeatzeko historikoki zehaztu den modua direla, eta zalantzak sortzen dira horien balio ekonomikoaren inguruan, ulertzen delako kapitalaren balorizazio prozesu bat gertatzen den guztietan ez dela gertatzen beharrak asetzeko prozesu bat. Ikuspegi horri dagokionez, eztabaida ez da zeri deitzen diogun lana, baizik eta ea zein jarduera eztabaidatu behar ditugun biziera onari buruz hitz egiteko garaian. Denboraren erabilerarekin lotutako inkestak lehenesten dira kontu sateliteen aurrean, eta kritikatu egiten da prozesu ekonomiko oro kuantifikatzeko irrika.

Zirkuitu integratuaren ideiak mugak ezbaian jartzen ditu: Batetik, ekonomia gizartetik, kulturatik eta politikatik bereiz daitekeen maila gisa ezarri nahi dutenak. Bestetik, ekoizpenaren eta ugalketaren, merkatua denaren eta ez denaren, publikoa eta pribatua/etxekoa denaren arteko mugak ezartzen dituztenak. Ahalmen analitikoa duten kontzeptuak badira ere, horiek modu zurrun eta dikotomikoan erabiltzeak aldaketarako bi funtsezko prozesu ikustea eragozten dute: Lehenik eta behin, **bizitzaren merkantilizazioa eta ezegonkortzea**, merkatuko gertakariak gero eta gehiago zeharkatzen eta baldintzatzen dutena (ongizatea kontsumo bezala ulertzea, kontsumoa kapitalaren balorizaziorako iturri gero eta handiagoa da, merkatuarekin lotutako irizpideek geure ikusmolde etikoak zeharkatzen dituzte...). Bizi-kalitatea/merkatuan dugun kokapena kontzeptuen arteko lotura gero eta estuagoa da, baliabideak kudeatzeko bestelako mekanismo kolektiboak

desagertzearen ondorioz (ongizate-estatu mehetzea; eguneroko bizitza indibidualizatzea). Horrek guztiak existentzia ezegonkortzeko prozesua du ondorio, ezegonkortasunak (bizi nahi den bizitza edukitzeko aukera izango dugunaren ziurtasunik eza bezala ulertuta) lanarekin lotutako hori barne hartzen duela, baina gainditu egiten duela ulertuz. Dikotomia horietara atxikita baldin bagaude, ezkutatu egiten da ere **lana feminizatze**ko edo **etxekotze**ko prozesua. Merkatuko lanek gero eta antza handiagoa dute historikoki etxeko esparruan emakumeei egotzi zaizkien eta ordaindu gabek izan diren lanekin: baldintzei dagokienez (enplegua ezegonkortzea, lan formularen eta informalararen arteko mugak barreiatzen dira, eta horrek bereziki eragiten die emakumeei), eta lanen edukiari dagokionez (bizitzaren dimentsio berriak merkantilizatzea, lan merkatuan txerazko gaitasunek, gaitasun komunikatiboek eta gorputzarekin lotutakoek duten garantiza). Prozesu hori estatuak berak eragin dezake. Dagoeneko enpleguaren eta lana ez den horren artean dauden lan-modalitateak baldin bazeuden ere (esaterako, praktikak), azken lan erreformak areagotu egin du errealitate hori (langabezia kobratzea eta borondatezko lana egitera behartuta egotea, LGSren % 75 ordaintzen duten enpleguak...). Zaintzen esparruan ere hori gertatzen da eta esparru gakoa dira horri dagokionez (etxeko esparrutik ateratzen dira enplegu duinak izatera heldu gabe; ordainsari kaskarrak dituen emakumeen lanean oinarritzen diren zainketa zerbitzuak sortzen ari dira); hori gertatu da mendetasun legearekin eta FIZPEarekin (Familia Inguruko Zaintetarako Prestazio Ekonomikoarekin).

2.2. Ekonomiak ez du ongi funtzionatzen, herri erakundeek esku hartu behar dute

Mugimendu feministetatik ekonomiaren inguruan hausnartzearen ideia beraren jatorria ekonomiak ongi funtzionatzen ez duenaren pertzepzioa da. Modu errazean esatearren: lanak eta baliabideak desberdintasunez banatzen dira eta ez dira ongizate-baldintzak ezartzen biztanleria osoarentzat. **Merkatu libreak ez du berdintasunez bermatzen ongizatea.** Ez dago neoliberalismoaren alde dagoen mugimendu feministarik eta, aldiz, guztien artean dagoen adostasun elementu bat herri erakundeen esku-hartzearen alde egitea da. Dena den, eztabaida estatuak zein helbururekin esku hartu beharko ote duen zehazteko garaian sortzen da. Eztabaida hori jarraian

aipatzen diren moduetan uler daiteke: Zein neurritan lor daiteke berdintasuna sisteman? Zer egin behar du estatuak berdintasuna lortzeko?

Berdintasuna lortzerik al dago sistema kapitalistaren baitan? Baretetik, jarrera integratzaileenak daude, berdintasuna posible dela diotenak eta jendearen ongizatea *ekonomia erreala*ren eta *ekoizpenaren* mailak ongi funtzionatzearen arabera dela diotenak. Enplegua eta soldata azpimarratzen dituzte, ongizatea lortzeko gako bezala. Argudiorik sendoena genero-desberdintasuna sistemarako eraginkorra ez dela dion hori da, giza baliabideak alferrik galtzen direlako (emakumeen giza kapitala eta gizonen zaintza kapitala) eta garapena moteltzen duelako (finantza-terminoak erabiliz, kostu handiagoa izatea eragiten du). Estatuaren esku-hartzeak sistemako maila guztietan (publikoak eta pribatuak) parte hartzeko aukera berdintasuna bermatu behar du, eta baliabideak inbertitu behar ditu *ekonomia erreala* dinamizatzeko.

Ikuspegi haustaileen arabera, egun indarrean dagoen sistemaren baitan berdintasuna egotea ezinezkoa da. Ikuspegi horien arabera, ongizatea helburu nagusi eta garrantzitsuena bada, eta ekonomia-politika horren mende egon behar bada, beharrezkoa da *ekoizpen* ereduaren ezbaian jartzea. **Kapitalismoak kapitala metatzeko prozesuaren eta bizitzaren iraunkortasunerako prozesuaren arteko egiturazko kontraesana** duela diote. Kontraesan hori ezin da konpondu eta beharrezkoa da *jarrera bat hartzea*. Kapitalismoa (bere modalitate anitzetan), definizioz, metaketa lehenesten duen, eta gizakien eta gainerako izakien bizitza horren mende jartzen duen sistema ekonomikoa da. Horrek bizitza mehatxu iraunkor baten azpian jartzea dakar eta bizitzari eusteko erantzukizun kolektiboa egotea galarazten du. Hala eta guztiz ere, metaketa gertatzeko ere, bizitza aurrera egin behar duen funtsezko oinarria da: bizitza bermatzeko erantzukizuna ekonomiaren maila ikusezin eta feminizatuen esku uzten da. Ikusezintasunak zera esan nahi du, existitzen direla ere onartzen ez dela, eta osotasuna ezbaian jartzeko ahalmena ukatu egiten zaiela: gatazka *desagertu* egiten da, ezkutatu egiten delako. Ikusezin bihurtze hori, historikoki, etxe barneko esparruari lotuta egon da, monetizatu gabe dagoen horri, eta bizitzaren zaintza identitate femeninoaren zati bezala naturalizatzeari. Horren ildotik, kapitalismoa, bere modalitate anitzetan, maila, lan eta subjektuen boterearen desberdintasunean eraikitzen da. Estatuaren esku-hartzea metaketa-proze-

suaren gailentasuna mugatzearekin lotuta egon beharko litzateke (hau da, gatazka arindu beharko luke) eta bizitzari eusteko prozesuaren zuzeneko erantzukizuna estatuaren gain jartzearekin lotuta egon beharko litzateke.

Laburbilduz: kapitalaren eta bizitzaren iraunkortasunaren artean gatazka bat dagoela onartzeak edo ez onartzeak bereizten ditu, neoliberalismoaren aurrean, sozialdemokraziaren alde egiten dutenak eta zantzu neokeynesiarrak duen kapitalismoaren alde egiten dutenak. Hau da, berezitu egiten ditu genero-berdintasuna eta pertsona guztientzako ongizate-maila egokia esparru horren baitan lortzea uste dutenak; eta arazoa kapitalismoa bera uste dutenak (berez hierarkikoa delako eta bizitzaren iraunkortasunarekiko egitura-tentsioaren gainean eraikitzen delako)

2.3. Genero desberdintasunaren arazoaren jatorria eta lanaren sexuaren araberako banaketan gauzatzea: zer egin lanarekin?

Mugimendu feministek ekonomiaren gainean duten ikuspegiaren abiapuntua oso bidegabea den lanaren sexuaren araberako banaketa bat dagoela adierazten dela da; hori horrela, ekonomiarekin lotutako horren inguruan pentsatzeko bi apustu handiak bateratu egiten dira: ordaindutako lanez gainera, beste lanak ere badaudela, eta ekonomia ez dela neutroa generoari dagokionez. Ekonomia feministaren eztabaidetako eragin marxistek *zapalkuntzaren oinarri materialean* bilatu dute emakumeen gaineko zapalkuntza ekonomiko guztiaren azalpena. Hori dela eta, gai horri modu zehatzean eskainiko diogu arreta:

Lanaren sexuaren araberako banaketa dela-eta, modu sistemikoan banatzen da lana sexuaren arabera, emakumeen balio gutxien duen lana esleituz (etxeetan ordaindu gabe egiten den zaintza-lana) eta gizonei autonomia finantzarioa, gizarte-eskubideak eta jendaurreko aitortza ekartzen dien lana esleituz (soldatapeko lana). Etxe barneko desberdintasuna, lan merkatuan sexua dela-eta egiten den diskriminazioarekin (sartzeko zailtasunak, enplegu modalitate ezegonkorragoak, lanbideen segregazio bertikala eta horizontala, diskriminazioa ordainsarrietan...) batera gertatzen da. Bi mailatan gertatzen diren desberdintasunek atzeraelikadura sortzen dute: emakumeen jatorrizko egoerak desabantaila handiagoak ditu laneratzeari

eta ibilbide profesional bat garatzeari dagokionez, eta lan-merkatuan generoarekin lotutako aurreiritziak daude. Eztabaidatu egin da ea gizon hornitzailea / etxeoandrea eredu zahar hori gizonak merkatuan soilik egotea / emakumeak etxean eta merkatuan egotea (merkatuan, erdizka, egotea) eredu berriarekin ordezkutzen ari den. Aipatu da etxean dagoen desberdintasun horrek, gero merkatuan errepikatzen denak, emakumeentzako diru-sarrera gutxiago eta gizarte eskubide okerragoak dakartzala adierazi da. Eta baita, oro har, emakumeei bizitza ezegonkorra edukitzeko arrisku handiagoa ekartzen diela ere.

Lanaren sexuaren araberako banaketa dagoela egiaztatu ostean, galdera da nola eman horri aterabide bat; horretarako sisteman betetzen duen papera ulertu beharko dugu. Arazorik handiena lanaren sexuaren araberako banaketa *matxismoaren* ondoriozkoa dela bada (eta hortik, merkatuan dauden kokapen desberdinetan dituen ondorio kaltegarriak badaude), eten behar dena, batez ere, zaintza-lanaren banaketa kaskarra da. Enplegua da burujabetzerako bide nagusia, autonomia finantzariarako, gizarte-eskubideetarako, sozializatorako eta identitaterako sarbidea ematen dituelako. Kalitatezko enplegu osoa posible eta desiragarria da. Enplegua bidezkoa den moduan banatzeko, beharrezkoa da, hain zuzen ere, ordaindu gabeko lana banatzea (gizonek etxean ardura partekatzea) eta herri erakundeek uztartzeko eskubideak eta zaintza-zerbitzuak ematea. Aurretik aipatu dugun *ekonomia erreala* ezin da edonola dinamizatu, aitzitik, zainketak gizarteratzea eta emakumeentzako lanpostuak sortzea bilatu behar da.

Bestalde, adierazten da galdera gakoa dela ikusezin egin den eta feminitateari esleitu zaion ordaindu gabeko lan horren eta maskulinitatearekin lotutako ordaindutako lanaren arteko harremanarekin zerikusia duen hori. Lehenengoak sisteman egiturazko paper bat betetzen duela baieztatzen da, kapitalaren eta bizitzaren arteko aipatu gatazka xurgatzen baitu. Zaintzen edota ordaindu gabeko lanaren bitartez, bizitza eusteko erantzukizunaren ardura hartzen da eta, lehen esan dugun bezala, hori ikusezinak diren esparruetan gertatu behar da, bizitza mehatxatzen duen eta bizitza beste helburu baterako baliatzen duen sistema batean egitearen tentsioa gatazka sozial batean bilaka ez dadin; modu indibidualizatu eta ezkutuan bizi dadin. Lanaren sexuaren araberako banaketa kapitalismoak bizirik irauteko gakoetako bat da. **Enplegu osoa ez da posible** eta enpleguaren bitartez

burujabetzea lortzeko estrategiek aurkitu dituzten mugak horren lekuko dira (gizarteratzearen aurreko erresistentzia handiak, sexuaren arabera lanaren banaketa klasearen eta estatus migratzailearen arabera berregituratzea). Ezin dugu lanaren sexuaren arabera gainbeheran aurrera egin sistema bere osotasunean ezbaian jarri gabe (bestela esanda, zainketak gizarteratzeko, sistema kapitalista eraldatu behar da). Hortik, lanek bizitzari eusteko duten balioari buruzko galderak sortzen dira: lanaren indarra metatzeko prozesuaren zerbitzura jartzeko saltzea al da feminismoaren xederik handiena? Enplegua ona dela jakintzat eman beharrean, galde al diezaiokegu gure buruari merkatuko lanen esanahiaren eta balioaren inguruan? Edo sortu behar den galdera da "baina... zertarako egiten dut nik lan hau?"⁵ lanen balioari buruz eta horiek banatzeko irizpideei buruz galdera sakonagoak irekitzearekin batera?

Eztabaida hori funtsean izaera liberalagoa duen feminismoa eta izaera marxistagoa duen feminismoa aurrez aurre ipini dituen eta emakumeen arerio nagusia nor denaren inguruan dagoen desadostasun historikoaren arabera irakur daiteke: Nor da arerioa, kapitalismoa edo patriarkatua? Kapitalismoa eta patriarkatua bi sistema dira, edo bakarra? Kapitalismo patriarkala da edo patriarkatu kapitalista? Aurretik aipatutako jarrerekin lotuz, aipatu beharra dago jarrera integratzaileenaren arabera, arazoak ez du hainbeste zerikusi *arerio* bat izendatzearekin, baizik eta sistemaren akats bat aipatzearekin, akats hori zuzentzea bailitzake guztiontzako onena (berdintasuna hazkunde ekonomikoarentzat ona denaren argudioa). Bake soziala bilatzen duen jarrera bat da. Jarrera haustaileenaren begitan, *kapitalismo heteropatriarkala* bezalako egiturazko ideiak erabiltzeak zalantzak sortzen baditu ere, gakoak da aipatzea lanaren sexuaren arabera banaketak interesen gatazka bat pizten duela, agerian jarri behar dugun tentsio sistemikoa, *uztartuz* (interesak, lanak, denborak) konpon ezin daitekeena eta *borrokatuz* konpondu behar dena.

5 Hernández Catalán, Rosario (2010) *¿Pero este trabajo ya para qué lo hago? Estudio sociológico sobre los malestares ocultos de algunas precarias conscientes*. Federación Mujeres Jóvenes. Jarraian dagoen webgunean eskura daiteke: www.educandoenigualdad.com/IMG/pdf/Rosario-Hdez-Catalan.pdf

2.4. Genero-neutraltasun eza prozesu ekonomikoetan

Mugimendu feministek komunean duten beste abiapuntu bat da **prozesu ekonomiko guztien eta, zehazki, politiken genero-neutraltasuna ez-baian jartzearena da**, abiarazten diren politikek eragina baitute generoaren arabera eta, aldi berean, aurretik existitzen diren genero-harremanek mugatu egiten dituztelako politikaren ekintza aukerak (adibidez, ezin da defizita arindu osasun-gastua murriztuz, genero-eraikuntza batek emakumeek estatuak egiteari uzten dion hori.egingo dutela bermatzen ez badu). Generoaren gainean eragin maltzurra duten, eta aitortzen diren ekonomia-politikaren joera nagusiak dira⁶:

- Deflazio-joera: Inflazio txikia lehentasun nagusi gisa izateagatik, enpleguaren hazkunde mailak dagoen ahalmenetik bera mantentzea. Batez ere emakumeek jasaten dituzten ondorio negatiboak ditu, emakumeak baitira lan-merkatutik kaleratzen dituzten lehenengoak, edo bertan sartzeko ezintasuna duten lehenengoak. Gobernuak eskuak lotuta ditu honen ondorioz, atzeraldi ekonomikoei eskaria dinamizatzeko politiken bidez aurre egiteko orduan.
- Joera pribatizatzailea: ongizate estatuaren gainbehera (osasungintza, hezkuntza, pentsio-sistema eta edozein zerbitzu publiko pribatizatzea); horrek eragina du emakumeengan hiru bidetatik: (1) langile publiko gisa, sektore publikoko lan baldintzak ez direlako pribatukoak bezain diskriminatzaileak; (2) prestazioen onuradun gisa, emakumeek gizonak baino gehiago erabiltzen baitituzte zerbitzu publikoak (hein handi batean, familiaren ongizatea bermatzeko ardura haiek dutelako da) eta (3) estatuak zerbitzuak emateari uzten dionean, ordaindu gabeko lanaren bitartez, haren ordezkotako gisa jarduten dutelako.
- Gizon hornitzailearen joera: azken burlan, normaltasun ekonomikoaren erdua gizonak merkatuan egotea eta emakume eta haurrak horien mende daudela onartzea. Hori emakumeak laneratzearekin konbinatzen da, emakumeak bigarren mailako langile gisa merkatu-ratzen direla, gaizki ordaindutako lanekin, lanaldi partzialeko lanekin edota lan ezegonkorrekin.

⁶ Lehenengo hirurak aspaldian aitortu ziren, azken biak duela gutxi onartu ziren.

- Arriskuaren joera: bizitzaren arriskuak sozializatzeko maila murrizten duten eta, horren ondorioz, indibidualizatu egiten dituzten gobernatzeko moduak. Azken urteotan eztanda finantzarioari aurre egiteko hartutako neurriak ildo horretan doaz.
- Maileguen joera: emakumeak finantza-merkatuetan txertatzea, gizonezkoei eskaintzen zaizkien baldintzekin alderatuz, desabantailazkoak diren maileguak jasoz, emakumeei dirua maileguan uzteak arrisku handiagoa duela dion genero-aurreiritzien konbinazio baten ondorioz, eta emakumeen esku dauden aurrezki txikien eta jabetza kopuru txikiaren ondorioz.

Neutraltasuna ez da existitzen, itsutasuna bai, ordea; hau da, joan-etorriko bide hau ez aitortzea eta desberdintasuna, besterik adierazi ezean, birsortzea (edo indartzea, batzuetan). Horren ildotik, ekonomia- eta lan-politika orok berdintasunean aurrera egiteko helburua izan behar du. Ezadostasuna, hemen, bi gaiekin lotuta azaltzen da:

Batetik, **zein eduki izan behar duen nahi den berdintasunak**. Ikuspeirik integratzaileenak emakumeak eta gizonak merkatuan non kokatuta dauden jakitean jartzen du arreta (enplegurako sarbidea, ordainsariak, aktiboak...), eta, hori abiapuntutzat hartuta, erabatekoa eta berdintasunezkoa izango den parte-hartzeari jarri zaizkion oztopoak (ikusten direnak eta ikusten ez direnak) zein diren jakitea. Oztopo horiei aurre eginez lortuko da aukera berdintasuna. Ikuspeirik haustaileenak heteropatriarkatua identifikatzen du, eraikuntza ekonomiko osoan hedatzen den sistema hierarkiko sexualizatu gisa. Mikroa den horretan, subjektuen kokapen zehatzari eragiten dio; mesoa den horretan, erakundeek desberdintasunezkoak diren balioak dituzte (adibidez, feminizatutako lanei balio txikiagoa aitortuz) eta makroa den horretan, *ugalketa ekoizpenaren* zerbitzura jartzen dute (etxeak sistema doitzeko elementu gisa erabiltzen dituzte). Merkatu kapitalistek desberdintasunez beteko harremanak berreraikitzen dituztela azpimarratzen dute. Hori dela eta, aukera berdintasuna ameskeria da kapitalismo heteropatriarkalaren esparruan, eta bilatu behar dena emaitzen berdintasuna da, biziera onera unibertsaltasun eta singularitate baldintzatan heltzeari dagokionez. Horren ondorioz, gizarte baten ongizatea zaur-

garritasunik handiena duen subjektuak lor dezakeen ongizatearen arabera ebaluatzea proposa al daiteke?⁷

Bestalde, **generoen barneko desberdintasunei** eta bestelako menderatze-dimentsio dituen sexuagatiko desberdintasuna gurutzatzeari **emandako garrantziaren** inguruko desadostasuna dago. Bestela esanda: Nor da subjektu hori, *emakumea*, nor da zein esperientzia ekonomiko duen jakin nahi duguneko, eta aurre egin nahi zaioneko esperientzia hori duen subjektua? Ikuspegi batzuek, emakumeen arteko desberdintasunak aitortzen hasi badira ere, zapalkuntzaren esperientzia komun bat dagoela defendatzen dute. Sistema ekonomikoaren balorazioaren datu eta irizpideei dagokienez, azpimarratu egiten da datuak sexuaren arabera bereiztea, eta politikek emakume eta gizonen gain dituzten ondorio desberdinak ulertzeko biltzen dira ahaleginak. Eragin politikoari dagokionez, desberdintasunak desberdintasun, nortasun kolektiboa duen subjektu bat aintzatesten da (gutxi gora behera homogeneoa dena). Ikuspegi horietatik, etxeko lanak desberdintasunez banatzen direla salatzen da, horrek emakumeen laneratzeari ondorio kaltegarriak ekartzen dizkiolako; egitura ekonomikoetan gailentzen den matxismoa ere salatu egiten da, arrazoi berberengatik (boterea duten organoetara heltzerik ez izatea —administrazio kontseilueta, adibidez—, finantza-baliabideetara heltzerik ez izatea —maileguak ukatzea—, eta abar). Beste ikuspegi batzuen arabera, ideia hori mugatua da eta balioa kentzen die emakumeen artean mailagatik, etniagatik, adinagatik, dibertsitate funtzionalagatik, genero- eta sexu-identitateagatik, migrazio-estatusagatik eta beste hainbat arrazoirengatik dauden aldeei eta desberdintasunei; izan ere, horrek presarik handiena duten arazoak oso bestelakoak izatea eragiten baitu (adibidez, atzeritarren legea beirazko sabaia baino arazo askoz ere handiagoa da emakume migratzaileentzat). Dena den, badago oinarri komun bat: bizitza lehentasun gisa aintzatesten ez duen sistema ekonomikoa. Hau da, subjektu politiko konplexuago baten ideia defendatzen da, ez hain esentzialista, baterako identitate politikoa eraikitzen lagunduko duena eta elkarguneetatik abiatuko dena, dauden alde eta desberdintasunak iku-

7 Zygmunt Bauman, *Has the future a Left?*, LSE 2012ko martxoaren 14a, jarraian dagoen webgunean eskura daiteke: <http://www2.lse.ac.uk/newsAndMedia/videoAndAudio/channels/publicLecturesAndEvents/player.aspx?id=1423>

sezin egin gabe. Subjektu anizkunari, anitzari, etengabean aldatzen denari eta kontraesankorra ere denari buruz hitz egiten da. Eta politika ekonomikoek sisteman modu desberdinean kokatuta dauden subjektuen gainean duten eraginaren berri izan nahi da. Errealitate hori konplexua da, ez baita erraza jakitea nor den barruan eta nor kanpoan, ez baitago barneratzearen eta baztertzearen arteko jarraitasun bat duen aterabiderik, eta ezegonkortasunaren dimentsioak anitzak eta konplexuak baitira.

2.5. Sistema ekonomikoaren protagonista den subjektua

Ekonomia feminista bat dator ekonomia modu askean trukeak egiten dituzten gizabanakoei osatzen ez dutela eta, aitzitik, **elkar mendekotasun errealitate bat kudeatzen duten gizarte-sareek** osatzen dutela dion ideiarekin. Funtsezko nodoak etxeak dira, horiek baitira jendeak haien bizitza ekonomikoa antolatzeke duen modua, erabaki ekonomikoak hartzeko esparrua eta sistema ekonomikoa berriz doitzen deneko azken lekua. Etxeak familiaren ikusmolde tradizionala baino errealitate zabalagoa eta anitzagoa dira, eta beharrezkoa da bizitza ekonomikoa kudeatzeko modu anitz horiek aitortzea eta zilegitzea. Etxeak ez dira unitate orekatuak, lankidetzaren gatazkaren gertalekua baizik; hori dela eta, arazo bat da politikak etxeetara unitate gisa zuzentzea (hori gertatzen da, adibidez, pobrezia aurre egiteko politiken kasuan; orokorrago, *feminizatutako* esparruetatik gertu dauden guztiekin: soziala den horrekin, zainketekin). Horren ildotik, etxeak gogoan izan behar ditugu, baina gizabanakoaren mailara jaitsi behar da, kide bakoitza nola dagoen ikusteko.

Hori horrela, baieztatu egiten da **politika ekonomikoa existitzen ez den subjektu independente eta buruaski bati zuzentzen zaiola**: irudi hori, ironikoki, *txanpinoi langile* gisa deskribatzen da: enplegutik kanpo erantzukizunik ez duena, eta enpleguaren bitartez estal ez daitekeen beharrik ez duena. Egunero merkatuan sartzeko (lan egiteko, kontsumitzeko) guztiz prest eta malgu sortzen dena, nondik sortzen den ez dakiguna, merkatutik ateratzen denean zer gertatzen zaion ez dakiguna eta merkatutik kanpo dagoen ezerekin konpromisorik ez duena.

Baieztatu egiten da subjektu hori soilik existitzen dela haren zaugarritasunak estaltzen dituen, eta elkar mendekotasuneko errealitatetik era-

tortzen diren erantzukizunak bere gain hartzen dituen pertsona ezkututzen den neurrian. Ekonomia- eta lan-politikaren *beste ezkutuko hori* etxea dela, bertan konpontzen baitira langile horrek dituen zaintza-behar guztiak eta bertan bereganatzen dituztelako har egiten ez dituen lanak. Horren ildotik, argudiatzen da, ekonomia-politikoak jakintzat ematen duela, modu ez esplizituan, shockak xurgatzen dituen, eta bizitza konpontzen duen koltxoia badagoela eta beti malgua dela.


Baieztaatu egiten da ere, antza, subjektu horrek ez duela inolako sexu-markarik, baina irudi maskulinizatua dela benetan, generoaren arabera bereizitako rolen esparruan (maskulinitatean soldatapeko lanaren bidez bere burua bere buruarentzat eraikitzeke prozesua dago; feminitatean nork bere burua besteentzat eraikitzen du, ongizaterako beharrezkoak diren gainerako lanen bitartez ere —ez soilik ordaindutako lanaren bitartez—). Hortik ondorioztatzen da emakumeak direla etxeetako koltxoi ikusezin hori, sistema ekonomikoa doitzen duen hori.

Egun **eztabaidatzen direnak maskulinitatearen eta feminitatearen eredu hegemonikoak dira**. Eta hemen azaltzen da ezadostasuna mugimendu feministen artean. Feminismoaren zati batek emakumeak ideal maskulinora gerturatu nahi dituzte (txanpinoi langilea, enplegua eta boterea duten lanpostuak). Beste zati batek generoen arteko hurbiltze bat nahi du (emakumeek merkatuetan zama handiagoa izatea, enplegu eta mailegu gehiago eta hobeetara heltzea, eta gizonen eremu pribatuan/ etxean gero eta parte-hartze handiagoa izatea). Azkenik, bada bi ereduak eztabaidatzearen alde egiten duen jarrera, biak kaltegarritzat jotzen dituelako (nork bere burua aski izatea kimera kaltegarria da, eta emakumeen artean sustatzen den immolazioa ere kaltegarria da), eta ekonomian parte hartzeko modu berri bat eraiki behar dela dio, biziera on kolektiboarekiko erantzukizun handiagoa izango duena eta norberaren biziera onari adi egongo dena.

2.6. Laburbilduz

Jarraian dagoen grafikoan ekonomiaren inguruan dauden pentsamendu-korronte feministak laburbildu ditugu, egungo estatus quoarekin integraztaileagoak diren jarreretatik hasi eta jarrera haustaileenekin amaituz. Bi

ardatzen inguruan bildu ditugu: non jartzen duten arreta (zer ulertu nahi den ekonomiari feminismotik begiratzen zaionean) eta zein punturaino uste duten egungo sisteman berdintasuna lor daitekeela. Bi gaiei ematen zaien erantzunak ondorio desberdinak ditu ekonomia- eta lan-politikan esku hartzeari dagokionez.



Puntu honetan zehar, ikuspegi edo jarrera integratzaile edo uztartzai-leagoi eta haustaileenei buruz hitz egin dugu. Egindako galderari emandako erantzunak ikusita, argi geratzen da korrante integratzaileak ez duela zalantzan jartzen merkatuek ekonomiarako duten garrantzia, eta horrexegatik, horiek analisiaren erdian egoten jarraitzen dutela; hala ere, errealitate ekonomikoaren alderdi monetizatua soilik aintzatesten duten ikuspegi androzentrikoen eskema partzialetatik urruntzen da. Bestalde, korrante haustaileen merkatuak erdigune pribilegiatu horretatik kentzen ditu, eta bizitzaren iraunkortasunerako prozesuak jartzen ditu politikan, gizarte arloan eta ekonomian egin beharreko jardunaren eta pentsamoldearen

erdigunean. Ikuspegi hori da Gipuzkoako Foru Aldundiaren II. berdintasun Planerako bururatu zaiguna. Ardatz analitikoa bizitzaren iraunkortasunarekin lotutako prozesuetara mugituz, merkataritza-prozesuak berak ezbaian jar ditzakegu: galdera ez da soilik nola funtzionatzen duten (eta horien funtzionamenduari zein genero-dimentsioek eragiten dieten; horixe da ekonomia feminista integratzaileenak galdetzen duena), baizik eta ea zein neurritan eusten ote dion bizitzari funtzionamendu horrek, eta zein botere-harreman sortzen eta birsortzen dituen. Galdera nagusia hau da: Zergatik iruditzen zaigu garrantzitsua ondasunak eta zerbitzuak sortzea, pertsonak ugaltzeko, biziera ona sortzeko ez bada?

3. JARRERA POLITIKO ETA KONTZEPTUALA

Atal honetan, mugimendu feministek ekonomiaren inguruan (eta, horretaz, ekonomia- eta lan- politikan) pentsatzeko orduan komunean dituzten abiapuntuei helduko diegu berriz. Horretaz gainera, mugimendu feministen baitan dauden eztabaidei helduko diegu berriz, enfugaren jarrera politiko eta kontzeptuala zein den azaltzeko, dagoeneko aipatu den proposamen haustaileenekin dugun bat-etortze orokorrak haratago. Aipatu jarrera herri politika aintzatetsita egiten da, hau da, ekonomia- eta lan-politika pentsatzeko ondorioak ateratzen saiatuz.

3.1. Ekonomia merkatuak baino zerbait gehiago da

Mugimendu feministek komunean duten abiapuntua hirukoitza da. Ekonomia merkatuan baino zerbait gehiago dela adierazten da (beharrak asetzea, monetizatutako eta monetizatu gabeko mailak; "ekoizpena" eta "ugalketa"); lana ordaindutako lana baino zerbait gehiago dela; eta etxeak ekoizpen unitateak eta oinarritzko ekonomia-unitateak direla.

Baina, hortik aurrera, eztabaida sortzen da: Nola ulertzen da sistema ekonomikoa? Bi proposamen daude. Batetik, bi mailen batuketa gisa ikus-tea (ez dira merkatuak ezbaian jartzen, amaierako erreferente gisa mantentzen dira). Bestetik, bizitzaren iraunkortasunerako beharrezkoak diren baliabideak ematen dituen zirkuitu integratu gisa ulertzea (merkatuen desnaturalizazioa; merkatuaren eta merkatua ez denaren arteko mugak iragazkortzea; publikoa eta pribatua/etxekoa).

II. Berdintasunerako Planak tradizioz Ekonomia-eta Lan-Politika gisa ulertu den horretan jartzen du arreta, baina eremu monetizatuak merkataritzakoak ez diren prozesuekin lotuta daudela ulertuz, eta horiek politiken zikloaren fase guztietan sartu behar direla ulertuz: diagnostikoan, diseinuan, gauzatzean eta ebaluazioan sartu behar dira. Horretaz gainera,

ekonomia- eta lan- politika gizarte-politikarekin ahalik eta gehien koordina- tzen dela bermatu behar da.

Ekonomia biziera ona egoteko aukerak emango dituzten baldintzak ezar- tzeko prozesuak direla ulertzen badugu, horixe izan beharko da ekonomia- eta lan-politikaren helburua: biziera onerako beharrezkoak diren baliabideak sortuko direla bermatzea, bizitzari eusteko erantzukizunaren desfeminizazio eta kolektibizatze prozesuan aurrera egin dadin ahalbidetuz.

Biziera ona unibertsaltasun eta singularitate baldintzatan zein neurri- tan lortzen den, edo ez den lortzen, ekonomia- eta lan-politika ebaluatzeko irizpidea izan behar da (eta ez eraginkortasuna, aurrekontuen oreka edo bestelakoak).

Enuntziatu abstraktu horrek aldaketak ekar ditzake esku-hartze zeha- tzetan: Esaterako, ekonomia-ekintzaitzari laguntzeko orduan, hasteko, geure buruari galde diezaiokegu zein iritziren arabera balioetsiko den ekintzaitza horien bideragarritasuna eta arrakasta. Sarritan, hazkundera- ren irizpidea erabili ohi da (gorantz doazen etekinak lortzea ahalbidetzea); hazkundera hainbat modutara neur daiteke, adibidez, hedapenaren eta lan- gile gehiago kontratatzearen bitartez. Beste aukera bat da biziera onarekin lotuago dauden zenbait irizpide proposatzea eta ekintzaitza arrakastatsua dela esatea baldintza hauek betetzen direnean:

- Iraunkorra da: ez da baliabideen etengabeko kontsumoan oinarritzen. Mugimendu feministen eta ekologismoaren ikuspegitik, iraunkortasu- nak hainbat dimentsio barne hartzen ditu, eta horiek ondorioak izango lituzkete definizio hori egiteko orduan. Hori horrela, iraunkortasuna ingurumenari dagokionez definitu daiteke (proiektuak baliabide na- tural gutxi kontsumitzen ditu), gizartearekin eta ugalketarekin lotuta (jarduera ez da harraparia ordaindu gabeko lanari edota gizarte-sareei dagokienez), eta finantzekin lotuta (ez dago kanpoko diru-sarrereren fluxu etengabe batetiko mendekotasunik).
- Modu *demokratikoan* funtzionatzen du: hau da, erabakiak modu kolekti- boan hartzen dira eta lanak eta etekinak berdintasunez banatzen dira.
- Biziera onarentzat baliabideak sortzera bideratuta dago, ez etekinak metatzera.

- Sinergiak sortzeko ahalmena du, hau da, jarduerak lotura horizontal eta bertikalak sortzen dituen (jarduera ekonomikoak eta gizarte-sareak barne hartuta)

3.2. Ekonomiak ez du ongi funtzionatzen, herri erakundeek esku hartu behar dute

Mugimendu feministen abiapuntua da estatuak ekonomian rol nagusia izan behar duela (merkatu libreko politikak kritikatzeari), eta biztanleriaren zerbitzura egon behar dela defendatzea da. Ezadostasuna estatuak bete dezakeen, eta beharko lukeen papera zehaztean sortzen da. Batetik, estatuak ekonomian esku-hartzen badu, helburua merkatu kapitalisten funtzionamendua hobetzea izan daitekeela aintzatetsi daiteke, ekoizpena berriz aktibatuz, enplegua (eta kontsumoa) bermatuko duen hazkundea lortzeko, eta ongizate estatua eusteko diru-sarrerak lortzeko. Horretarako, berdintasuna bilatzea mekanismo gakoetako bat da (desberdintasuna kaltegarria da). Berdintasuna, beraz, hazkunderako bitarteko bat da. Bestalde, estatuak esku hartzen badu jarrera bat erakusten dela adierazten da, gatazka onartua izan dadin (ezkutatuz), ikusezinak diren mailak behar dituen bizitzaren iraunkortasunaren eta kapitalaren arteko egiturazko gatazkaren aurrean. *Ekoizpena* hedatzea ez da ona bere horretan, baizik eta estaltzen diren beharren, eta horiek estaltzeko moduaren arabera. Metatze-logikaren hedapenak tentsio hori larriagotzea dakar. Deshazkunderaren aldeko apustua egin behar da, aldiz (biziera onaren ideia soilagoak, eta merkatu kapitalistek garrantzia galtzea). Estatuaren ekintzen beste helburua, biziera onerako baliabideak sortzeko erantzukizun kolektiboa zuzenean bereganatuz joatea da, edota erantzukizun hori erantzukizun kolektibo gisa onartzeko guneen sorrera ahalbidetuko duten baldintzak ezartzea.

Bigarren jarrerari sarritan egozten zaio utopikoa dela, ezin gauzatzekoa dela, edo hain direla epe luzekoak proposatzen dituen emaitzak, ez dela baliagarria egungo politika gidatzeko irizpide gisa. Dena den, ekonomia-eta lan-politika bi mailatan pentsa daiteke aldi berean:

- Epe laburrean: egungo sistemaren esparruan, bizi-kalitatearen eta merkatuan betetzen den lekuaren arteko lotura handia ezaugarri

duen horretan, presazkoak diren egoerentzat berehalako erantzunak bilatu behar direla onartuz.

- Epe ertain eta luzean: unibertsaltasunari eta singularitateari dagokionez, biziera onaren zerbitzura egongo den sistema ekonomikoa lortze aldera, ezinbestekoa da gailentzen den bestelako logika ekonomiko bat eraikitzen hastea, metatzean oinarrituko ez dena, eta bestelako logika horiei eragiteko aukera emango dioten guneak sortuz. Beste hainbat alderdiren artean, beharrezkoa litzateke eztabaidatzea zein izen eman diezaioketun logika berri horri (zaintzaren logika ekologikoa?).

Helburu horrekin, ekonomia- eta lan-politikak koordinatuta egongo diren hainbat helburu bilatu behar ditu:

- Bizitza egonkortzeko aurkitu diren presazko gai ei erantzun bat ematea: horrek, lehenik eta behin, eskatzen du jakitea zein dimentsiotan eta norentzat ari den larriagotzen ezegonkortasuna. Bigarrenik, lanaren ezegonkortze-prozesua gelditu behar da, zerbitzu publikoen andeatze edota pribatizazio prozesua eta eskubideen unibertsaltasunaren ideiaren galera gelditzearekin batera. Eta, hirugarrenik, baliabideetara heltzeko eta banaka bizi diren bizitzaren arriskuen aurrean babesteko elkartasunezko modu kolektiboak eraikitzea (zerbitzu publikoak edo komuna den hori kudeatzeko bestelako moduak izan daitezke, bizitzaren iraunkortasunari buruzko ardatzean aipatu bezala). Gutxieneko diru-sarrerak bermatzea (enpleguaren edo bestelako baliabideen bidez) ezin da izan esku hartzeko modu bakarra edo nagusia.
- Baliabideak ekonomia-mailatan berriz banatzen hastea, horien funtzionamenduaren logikaren arabera: (1) baliabide finantzarioak, espazialak eta lurraldekoak, naturalak, denborarekin lotutakoak... metatze-logikatik urruntzen hastea (horretarako hainbat mekanismo ezagutzen dira); eta (2) bestelako logika ekonomikoek (demokratikoak / elkarrekikoak / zaintzaren logika ekologikoa?) bultzatutako sortzeko eta banatzeko guneak eraikitzen edo indartzen hastea, horretarako, besteren artean, merkatu kapitalistetatik urrundutako baliabideak bertara bideratuz.

Azkenik, ekonomia- eta lan-politikarako irizpide gidari nagusi bat izan behar da dagoeneko existitzen den horri lehentasuna ematea hazkundearen aurrean (badaude Planari dagokion testuinguruan biziera ona bermatzeko baliabideak; hazkundera bilatzea metaketa logikaren gailentasunak ezarritako zerbait da).

3.3. Lanaren sexuaren arabeko banaketa: zer egin lanarekin?

Abiapuntu gisa, mugimendu feministek lanaren sexuaren arabeko banaketak irauten duela diote, eta horrek baliabideen banaketa bidegabea dakar (ordainsariak, gizarte-eskubideak, jabetzak, eta abar). Lanaren sexuaren arabeko banaketa sistema ekonomikoaren egitura-ardatz nagusia dela aintzatesten da.

Ezadostasuna lanaren sexuaren arabeko banaketa dagoela egiaztatu ostean egin beharreko galdera nagusiaren inguruan sortzen da. Galdera horrek ordaindutako lana eta ordaindu gabeko lana emakume eta gizonen artean bidezkoa den moduan banatzea lortzeko moduarekin du zerikusia. Horren azpian dagoen estrategia buruaskitasuna enpleguaren (autonomia finantzarioa, gizarte-eskubideak, sozializazioa eta identitatea lortzeko bidea) bitartez lortzea litzateke, baina, ordaindutako lana bidezkoa den moduan banatu ahal izateko, beharrezkoa da, hain zuzen ere, ordaindu gabeko lana banatzea (ardura partekatzea). Beste ikuspegi baten arabera, adierazten da galdera gakoa dela ikusezin egin den eta feminitateari esleitu zaion ordaindu gabeko lan horren eta maskulinitatearekin lotutako ordaindutako lanaren arteko harremanarekin zerikusia duen hori. Gizartean beharrezkoa den lanaren (biziera onerako beharrezkoa dena) eta alienatutako lanaren artean bereizten jakin behar dugu (alienatutako lanak beste helburu batzuk ditu: ordaindutako lanen artean, metaketa prozesurako baliagarriak direnak, baina ongizaterako baliagarriak ez direnak; ordaindu gabeko lanen artean, badaude ikuspegi liberatzailetik ezinbestekoak ez direnak). Berehalako helburua lan guztiak desberdintasun-ardatz anitz guztietan zehar banatzean aurrera egitea da (generoa barne hartuz, baina horretara soilik mugatu gabe), eta lanen balioaren inguruko eztabaida zabaltzea. Amaierako helburua alienatutako lanarekin amaitzea eta gizartean beharrezkoak diren lanen inguruko erantzukizun soziala sortzea litzateke, horiek berdintasunez banatuz.

Lanaren sexuaren araberako banaketari dagokionez, ekonomia- eta lan-politikak norabide bikoitzean eduki beharko luke eragina:

- Egungo lanen banaketa hobetzea: ordaindutakoena eta ordaindu gabeena. Helburu horren baitan uztartuko lirateke jarraian aipatzen direnak:
 - enplegura baldintza duinetan eta berdintasunez hel dadin bermatzea eta lan-diskriminazioaren aurka borrokatzea, baina onartzuz enplegu mota guztiak ez direla modu berean askatzaileak edo gizartearentzako beharrezkoak.
 - gizonak eta estatuak ordaindu gabeko zaintza-lanetan arduraren parteketa dezaten aurrera egitea, horri buruz zainketen ildoan aipatutako helburuak txertatuz
 - merkatuko lanaren eta ordaindu gabeko zaintza-lanen engranajea erraztea, merkatuko lanari mugak ezarriz, zainketen konponketak errazagoak izan daitezten
- Lanen balioespen desberdina azpimarratzea: balio berdina duen lana berdinean ordaintzeko helburuari berriz heldzea, lanak modu desberdinean baloratzeari buruzko eztabaida zabalduz, eta lanari berriz balio emateko neurriak proposatzea, balio hori bizitzaren iraunkortasunaren prozesuan betetzen duten paperarekin lotuz.

3.4. Genero-neutraltasun eza prozesu ekonomikoetan

Adostasuna duen abiapuntua, ekonomia-politika, generoari dagokionez, neutrala ez dela, baina itsua dela da. Genero-harremanek politikoki egin daitekeena mugatzen dute, eta politikek aldatu egiten dituzte genero-harremanak. Politikako genero-joera nagusiak dira: deflazioarena, pribatizatzailea, hornitzailearena, arriskuarena eta maileguarena.

Ezadostasunak bi ildoen inguruan sortzen dira. Batetik, zer hartu behar duen aintzat ikuspegi feminista batek politiken genero-eragina ebaluatzeko orduan eta, horrekin batera, zein den lortu nahi den berdintasunaren helburua. Emakumeak eta gizonak merkatuan non dauden (enplegura heldzea, ordainsariak, aktiboak...) jakin behar ote den eta, hortik abiatuta egin behar ote den aukera-berdintasunaren aldeko apustua. Edo zirkuitu integratuan leku desberdinetan kokatuta dauden subjektuen gainean, biziera onari da-

gokionez, duten eragina zein den jakin behar ote den, generoarekin batera boterearekin lotuta gurutzatzen diren bestelako aldagaiak aztertuz, eta emaitzen berdintasunaren aldeko apustua egin behar ote den. Bestalde, **generoen barneko desberdintasunei** eta bestelako menderatze-dimentsio dituen sexuagatiko desberdintasuna gurutzatzeari **emandako garrantziaren** inguruko eztabaida zabaltzen da.

Azaldutako eztabaiden aurrean jarrera bat hartuz, jarraian aipatzen direnak ondoriozta ditzakegu:

- Ekonomia- eta lan-politikak berdintasuna bilatu behar du zeharkako helburuen artean, baina apustua emaitzen berdintasunaren aldekoa izan behar da (ekonomia- eta lan-politikak merkatu kapitalistetan desberdintasunak biderkatzeko prozesua geldituz eragin behar du)
- Berdintasun politiken eta ekonomia- eta lan-politiken arteko koordinaziorik ahalik eta handiena bermatzea
- Ekonomiaren eta ekonomia- eta lan-politikaren funtzionamendua ebaluatzeko irizpidea, sisteman leku desberdinak betetzen dituzten subjektuek biziera ona izateko beharrezkoak diren baliabideetara duten sarbidea izan behar da. Are gehiago, jarraian aipatzen den irizpidea baliatzeko aukera aintzat hartzea proposatzen dugu: sistema sozioekonomiko jakin batek sortzen duen ongizate-maila lekurik txarrena duen pertsonak (zaurgarritasun handiena duen kideak) duen ongizate-mailarako sarbidearen arabera ebaluatzea.

3.5. Sistema ekonomikoaren protagonista den subjektua

Ikuspegi feministek komunean duten abiapuntua, ekonomia- eta lan-politika existitzen ez den subjektu bati zuzentzen zaiola salatzea da: buruaskia den gizabanakoa (txanpinoi langilea), sexu-markarik ez duena eta beste inolako botere-ardatzen markarik ez duena. Pertsonak eredu horretara lan-merkatuan txertatuz soilik hel daitezke, zaurgarritasunak estaltzen dituen, eta elkar mendekotasunezko errealitatek erortzen diren erantzukizunak bere gain hartzen dituen pertsona ezkututzen den neurrian. Funtsean, maskulinizatutako irudia da, generoaren arabera bereiztutako rol ekonomikoen esparruan. Hortik ondorioztatzen da emakumeak direla etxeetako koltxoik ikusezin hori, sistema ekonomikoa doitzen duen hori. Ekonomia- eta

lan-politikak ez du hori aitortzen edo modu esplizituan adierazten, baina benetan, gizonen zuzendua dago eta jakintzat ematen da ordaindu gabeko lana beti malgua dela eta *shock* guztiak xurgatzeko gai dela.

Eztabaida sustatu nahi ditugun ekonomian parte-hartzeko modu berriak proposatzeko orduan irekitzen da. Hiru jarrera posible daude. Bata, merkatuetan emakumeek maskulinitatearen rola berdin berdin daitezela baldintzak ezartzearen alde egitea (modu indibidualizatuan jokatu ahal izatea, *txanpinoi* langileak egiten duen bezala). Bestea, emakumeek zainketetan betetzen dituzten rola berriz balioa ematea eta horiek adibide gisa ezartzea (gizartea eta gizonak amatasuntzea). Azkenik, maskulinitateari eta feminitateari lotutako rol ekonomikoak eraldatzea, elkarrekikotasunari dagokionez, elkar mendekotasuna ezar dezaketen, eta autonomiarako bidea emango duten rola eraikitzen, enpleguaren esparruak langile estandarren irudia errotik aldatu behar duela ulertuz.

Horretaz gainera, garrantzitsua da aintzat izatea ekonomia-politiken jomuga den subjektuaren ideia eraldatzea proposatzen denean dauden arriskuak. Batetik, ikuspegi feminista batzuen arabera, emakumeak subjektu gisa berreskuratzea horien eraginkortasun eta produktibitate handiagoaren argudioaz baliatu da (adibidez, emakumeentzako mikrokredituetara zuzenduta baliabide finantzarioak handitzeko mailegu-hartzaile fidagarriagoak direla argudiatu da); emakumeengan baliabideak inbertitzeak onura familia osoari, eta ez soilik haiei, ekarriko diola argudiatu da ere (gizonezkoengan inbertitzen denean baino onura asko handiago ekarriko lioke familiari). Hemen dagoen arazoa emakumeen ikuspegi instrumentalista batean erortzea da, ongizateak helburu bat izateari uzten baitio, eta familiarengana edo hurrengana heltzeko, edo merkatuko prozesuak sustatzeko baliabide bilakatzen da (emakumeen ongizatearen beraren bizkar ere, adibidez, lanaldi akigarriak eginez)⁸

8 Horren adibide argia da *garapenerako diru-bidalketen* diskurtsoa da; horren arabera, emakume migratzaileei inbertitzeko edota maileguak emateko aukerak eskaintzea proposatzen da, horiek haien diru-bidalketak, sorterriko familiak eta komunitateak aurrera ateratzeko modu zuzenean erabiliko dituztenaren argudioa baliatuz. Beraiek garatzen badira (dirua edukitzean automatikoki boteretzen baititu), haien familiak, sorterriak eta daudeneko herrialdeak garatzen dituztelako da. Hirukoa! *Garapen globalaren peoiak* dira. Horrela zorpetuta geratzea, diru-bidalketak egitea haien ongizatearen bizkar izatea, diru-bidalketek sorterrian desberdintasunak areagotzea... horiek guztiak garrantzirik gabeko faktoreak dira.

Bestalde, emakumeek eta gizonek betetzen dituzten rol desberdinak aitortzea (eta gai hori politiken diseinuan sartzeari) oso garrantzitsua bada ere, erraza da horiek solidotzea (adibidez, ordaindu gabeko zainketetan jardun diren emakumeen esperientziaren bidez lor daitekeen ezagutza aitortzeak laneratzeko bide bat sor dezake eta, aldi berean, emakumeak zainketen sektorean *giltzapetu* ditzake). Galdera da ea nola lor dezakegun horiek ikustea, erantzun bat ematea eta, aldi berean, eraldatzea (jakinez ekonomia-politikak genero-arauak birsortzen dituen eragilea dela, eta hori modu performatiboan mamitzen dela ulertuz).

Eztabaida horien aurrean, ekonomia- eta lan-politikarako jarraian aipatzen diren abiapuntuak proposa ditzakegu:

- Esku-hartzearen subjektu gisa, harremanak dituen gizabanakoa identifikatzea (hari banaka zuzendu behar zaio, baina dituen erantzukizun eta elkar mendetasun sarea aitortuz), hainbat bizikidetzak eta elkar mendetasun modu dituenak (elkarren arteko harreman-sarean nodoak diren etxe anitzak). Horrek bi aldaketa dakartza berekin:
 - ekintzak indibidualizatutako subjektuei edo ustez harmoniatsuak diren familiei ez zuzentzen saiatzea (eta horietara familia-buru bat dagoen ideien bitartez ez zuzentzea).
 - ordaindu gabeko lana *shock* ekonomikoak xurgatzeko beti malgua den koltxoi gisa ez erabiltzea.
- Emakumeak ekonomia- eta lan-politikaren subjektu gisa aitortzea, *hazkunderaren*, familiaren ongizatearen edo beste edozein helbururen onerako instrumentalizatuak izan daitezten ekidinez.
- Sexu-marka duten rola aitortzea, horiek eraldatzeko helburuarekin, eta ongizate kolektiboarekiko konpromisoa duten rola eraiki daitezten sustatuz (bizitzari eusteko erantzukizuna eta desfeminizatzea)

3.6. Laburbilduz

Jarraian dagoen taulan, mugimendu feministetatik proposatutako abiapuntuetan oinarrituta, zabalik dauden eztabaidak laburbiltzen ditugu, eta baita Gipuzkoako Foru Aldundiaren II. berdintasun Planerako, herri politikak go-goan izanda, proposatzen dugun iritzi politikoa eta kontzeptuala ere.

Abiapuntuak	Eztabaida feministak	Iritzi politiko eta kontzeptuala
<p>Ekonomia merkatuak baino zerbait gehiago da (beharrak asetzeari, monetizatutako eta monetizatu gabeko mailak)</p> <p>Lana ordaindutako lana baino zerbait gehiago da</p> <p>Etxeek ekoizpen-unitate gisa duten garrantzia</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Nola ulertzen da sistema ekonomikoa? • bi mailen batuketara (merkatuak amaierako erreferente gisa) • zirkuitu integratua: bizitzaren iraunkortasunerako beharrezkoak diren baliabideak (merkatuak desnaturalizatzea) Muga gero eta lausoagoak 	<ul style="list-style-type: none"> • Ekonomia- eta lan-politikaren muga klasikoak dituen ildoak, baina merkatukoak ez diren prozesuak ziklo politikoaren fase guztietan sartuz • Ekonomia- eta lan-politika gizarte-politikarekin ahalik eta koordinatuen egon dadin bermatzea • Lan- eta ekonomia-politikaren helburua: biziera onerako baliabideak ematea • Ekonomia eta ekonomia- eta lan-politika baloratzeko irizpidea: biziera onerako sarbidea, unibertsaltasun eta singularitate baldintzetan
<p>Lan- eta ekonomia-politikaren egokitasuna: estatuak rol nagusia izan behar du ekonomian</p>	<p>Zein paper bete dezake eta bete behar du estatuak?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Merkatuen funtzionamendua hobetzea, ekoizpena berri aktibatzea Berdintasuna hazkunderako bitarteko gisa • Kapitalaren eta bizitzaren iraunkortasunaren arteko gatazkaren aurreko jarrera. Desberdintasuna sistemak berezko du. Estatuaren bi zeregin: (1) metatze-logikaren eragina mugatzea eta (2) bizitzaren iraunkortasunean erantzukizun kolektiboa bere gain hartzea edota sustatzea. 	<p>Ekonomia- eta lan-politika bi mailatan pentsatzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Epe laburrean: berehalako erantzunak ematea, sistemaren mekanismoekin • Epe ertainean: metatze-logika ez den beste logika ekonomiko nagusi bat ezartzea <p>Ekonomia- eta lan-politika koordinatutako helburuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • bizitza egonkortzeko neurriak (lanaren ezegonkortzea gelditzea, arriskuak sozializatzea, gutxieneko diru-sarrera mailak bermatzea) • Baliabideak ekonomia-mailatan berriz banatzea, horien funtzionamenduaren logikaren arabera

Abiapuntuak	Eztabaida feministak	Iritzi politiko eta kontzeptuala
<p>Lanaren sexuaren araberako banaketa: baliabideen banaketa bidegabekoa dakar berarekin eta sistema ekonomikoaren ardatz egituratzaile zentrala da</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Zein da galdera? • nola lortu ordaindutako lana eta ordaindu gabekoa berdintasunez bana dadin emakume eta gizonen artean. Burujabetzea, enpleguaren bitartez. Erabateko enplegua egingarria eta nahi den zerbait da. • zein harreman dagoen ikusezin egin den eta feminizatua dagoen ordaindu gabeko lanaren eta maskulinizatutako ordaindutako lanaren artean (kapitala / bizitza gatazka xurgatzea). Erabateko enplegua ez da egingarria. Enplegua alienatutako lan gisa 	<p>Ekonomia- eta lan-politikak bi norabidetan eragina izatea.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Lanak berriz banatzea: <ul style="list-style-type: none"> – baldintza duinak eta berdintasunezkoak izango dituen enplegura berdintasunez hel daitekeela bermatzea – zainketen ardura partekatzean aurrera egitea – merkatuko lanaren eta zaintza-lanaren arteko engranajea erraztea • Lanen balioespen desberdina azpimarratzea: (balio berbera den lana berdinean ordaintzea, lanek gizartearentzat duten balioaren inguruko eztabaida)
<p>Ekonomia-politika ez da neutrala generoari dagokionez</p>	<p>Bi desadostasun puntu:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Nola ebaluatu generoaren gaineko eragina eta berdintasun helburuak zeintzuk izan behar diren <ul style="list-style-type: none"> – emakumeak eta gizonak merkatutan non dauden jakitea → aukera berdintasuna – biziera onaren gaineko eragina zein den jakitea → emaitza-berdintasuna 2. Generoen barneko desberdintasun-harremanen garrantzia 	<ul style="list-style-type: none"> • Emaitza-berdintasuna, ekonomia- eta lan-politikaren zeharkako helburu • Berdintasun politiken eta ekonomia- eta lan-politiken arteko koordinaziorik ahalik eta handiena bermatzea • Ekonomiaren funtzionamendua eta ekonomia- eta lan-politika ebaluatzeko irizpidea: sistema leku desberdinetan dauden subjektuen biziera onerako beharrezkoak diren baliabideetara heltzea

Abiapuntuak	Eztabaida feministak	Iritzi politiko eta kontzeptuala
<p>Ekonomia- eta lan-politika existitzen ez den subjektu bati zuzentzen zaio: buruaskia den gizabanakoa (txanpinoi langilea), markarik ez duena</p> <p>Oinarrizko ekonomia-unitatea: lankidetzaz gatazkan dauden etxeak</p> <p>Sexu-marka duten rol ekonomikoak</p>	<p>Eztabaida: zer egin sexu-marka duten rolekin</p> <p>Emakumeak maskulinoa den horretara gerturatzeko baldintzak</p> <p>Gizartea amatasuntzea</p> <p>Biak eraldatzea: konpromisoa duten eta askatzaileak diren rol berriak</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Harremanak dituen gizabanakoa esku-hartzearen subjektu gisa; bi aldeketa: <ul style="list-style-type: none"> – ekintzak ez zuzentzea subjektu indibidualizatuei edo familia harmoniatzuei – kostuak ordaindu gabeko lanera bidera daitezkeen ekiditea • Sexu-marka duten rola eraldaketarako helburuarekin aitortzea: bizitzari eusteko erantzukizunaren demokratizazioa eta defemenizazioa • Emakumeen instrumentalizazioa ekiditea

4. TESTUINGURUAREN ANALISIA

2008an, datuak ditugun azken urtean, etxeetan egindako ondasunen eta zerbitzuen ekoizpena, datu ekonomiko estandarretan barne hartzen ez dena, 5.959.943€koa zen Gipuzkoan, edo, bestela esanda, BPGren (aitortzen eta zenbatzen den ekoizpenaren) % 26,8 zen. Hori ekonomiari androzentrikoa ez den ikuspegi batetik begiratzeko saio bat da, baina, ikuspegi horrek erabiltzen dituen moneta-termino prototipikoei dagokienez, lengoia bera erabiliz. Baloratzeko modu hori azpimarratzea komenigarria izateaz haratago, interesgarria litzateke jakitea zein eboluzio izan duen adierazle horrek azken urteotan, krisialdiarekin. Susmoa da ehuneko horrek gorakada nabarmena izan duela, batetik, BPG 21.136.012€an murriztu delako eta, bestetik, datu kualitatiboen arabera, lana merkatukoak ez diren mailalara mugitu delako. Diru-sarrerak ez izateagatik dagoeneko merkatuan erosterik ez dagoen hori, eta herri-gastuan egindako murrizketengatik estatuak dagoeneko ematen ez duen hori, merkataritzakoa ez den ekoizpena handituz konpentsatu ohi da. Horrek merkantilizatzeko eta ordaindu gabeko lana kanpora ateratzeko behatu den jarrera lehengorutzen ari dela esan nahi dezake. Dena den, ez dugu hori egiaztatzeko datu kuantitatiborik, besteren artea, merkatukoa ez den lan-jardueraren berri izateko inkestak bost urtean behin egiten direlako (eta ez hiru hilean behin, merkatuko lanari buruzko inkestak bezala). Horrek, aldi berean, agerian jartzen du Euskal Autonomia Erkidean (EAEn) genero-adierazleen eskuragarritasuna hobetzeko ahalegin handia egin den arren, oraindik ez dagoela behar adina adierazle.

Gipuzkoako ekonomia- eta lan-egoerari buruzko irudi panoramiko labur honetan, monetizatutako mailatan jarriko dugu arreta, izan ere, ekonomia- eta lan-politikaren ildoak bertan jartzen baitu arreta (horrek dagoeneko aipatu ditugun tentsioak berekin dakartza), baina maila horiek ordaindu gabeko lanekin duten harremana ere txertatuko dugu. Esaterako, ez dugu xehetasunez aztertuko nola banatzen den ordaindu gabeko lana etxe

barnean, baina lan-zama orokorraren (ordaindutakoa eta ordaindu gabea) banaketari helduko diogu. Horretaz gainera, ahal den neurrian (eskuratu ahal izan ditugun datuekin), maila horiek baloratuko ditugu bizitzaren iraunkortasunaren ikuspegitik⁹.

4.1. Begirada zabaldu bat ekonomiari: galdera irekiak

Sistema ekonomikoa androzentrikoa ez den ikuspegi batetik begiratzen badugu, pertsonen jarduera ekonomikoaren egoera erabat aldatzen da, ohiko

9 Análisi hori jarraian aipatzen diren dokumentuak eta Interneteko baliabideak kontsultatuz egin dugu:

- EUSTAT:
 - *EAEko Etxeko lanari buruzko Kontu Satelitea*, 2008
 - *Lana, familia eta norberaren bizitza uztartzeari buruzko inkesta. Emaitzen analisisa*, 2010
 - *Biztanleriaren Inkesta Jardueraren Arabera*, hainbat urte
 - *Denboraren Erabilerari buruzko Inkestak*, hainbat urte
- EIN: *Biztanleria Aktiboaren Inkesta*, hainbat urte
- Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzza Saila (2009), *Pobreziaren eta Gizarte-desberdintasunen Inkesta, 2008. Laburpena eta Ondorioak*
- Aitor Bengoetxea (koordinatzailea), Maite Erro Jauregi eta Pilar Sanz de Pablo (2009), *Genero-berdintasuna Hitzarmen Kolektiboetan. Txosten berezia*. Argitaratzailea: Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa
- GIPUZKOAKO FORU OGASUNA: *Urteko Txostena*, 2010.
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2012ko Aurrekontuak.
- ERANSK. (2010), *EAEko emakumeen ibilbide eta egoera profesionaleko desberdintasuna. Emakumezkoen talentua alferrik galtzearen kostu erlatiboa*, Argit. EMAKUNDE
- Ainhoa Novo Arbona, Eva Martínez Hernández, Jaione Almirante eta Dorleta Peña (2010), *Euskadiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko zifrak*, 2010. Argit. EMAKUNDE
- Webguneetan egindako kontsultak:
 - Gipuzkoako Gizarte Behatokia: <http://www.behagi.net/>
 - Gipuzkoako Foru Aldundia: <http://www.gipuzkoaaldundia.eus>
 - Gizarte-ekonomia Euskadin, REAS-Euskadi http://www.economiasolidaria.org/documentos/gizarte_ekonomia_euskadin_la_ekonomia_social_en_euskadi_video
http://www.gizartepolitika.net/02_1_insercionsocial.php

Mertxe Larrañaga eta Iolanda Jubetok kapitalaren diktaduraren aurreko proposamen feministei buruz, 2012ko martxoan, Bilbon, emandako hitzaldia: <http://www.youtube.com/watch?v=abs7C8QTBuc>

irudiarekin alderatzen badugu; izan ere, irudi horren arabera, 10 pertsonatik 4k ez du lanik egiten (2011ko IV. hiruhilekoko merkataritza-jardueraren tasa % 56,4koa zen). Aipatu beharra dago, biztanleria gehienak duela lan-jardueraren bat: emakumeen % 96,7ak eta gizonen % 77,2ak. Ikuspegi horrek apurtu egiten du gizartea merkatuan dagoen sektore, nolabait, txikiaren mende dagoenaren ideia, eta agerian jartzen du sistema sozioekonomikoa, beharrak asetzeko ondasun eta zerbitzuak ekoizten dituen zirkuitu integratu gisa, benetan, elkar mendekotasun egoeran dagoela.

Zirkuitu integratu hori hainbat mailaz osatzen da. Lau esparru handitan bereiz ditzakegu: sektore publikoa, irabazi asmoa duen sektore pribatua, gizarte-ekonomia eta etxeak. Egungo krisialdi egoera, ikuspegi zabalago horrek erakusten dituen maila horien guztien papera ezbaian jartzeko unea da.

Sektore publikoari dagokionez, aipatu behar da ekonomia- eta lan-politika eztabaida horren erdigunean dagoela, bi zentzutan: hainbat baliabide bideratuko dira horretara (adibidez, zor publikoaren partida % 38,9 handiagoa da 2010ko aurrekontuetan), eta hori dela eta, garrantzi handia hartzen du zein interesei erantzuten dienaren galderak; eta beste politiken aurrean (gizarte-politikaren aurrean, batez ere) gailentzeko arrisku handia duelako. Ondorioz, ekonomia- eta lan-politikaren lehentasuna ongizatea izan behar dela azpimarratzeko unea dugu orain (biziera onerako beharrezkoak diren baliabideak ezarri behar ditu, unibertsaltasunari eta singularitateari dagokionez), eta baita horren gailentasuna ekidin behar dela adierazteko unea: gainerako esku-hartze eremuetan irizpide ekonomizistak ezartzen ez dituela bermatuz, eta irizpide sozialekin ebaluatuko dela bermatuz.

Enpresa-sektoreari buruz, aipatu beharra dago EAEn, gainerako autonomia erkidegoekin alderatuta, gizarte-ekonomia handia dagoela¹⁰. Sektorea osatzen duten entitateak Konfekoop, Asle, Ahlabe, Gizatea, Funko eta Reas Euskadi dira. Horrelako entitateak egoteak errazago egiten du esparru horretan biziera onaren zerbitzura egongo diren egitura sozioekonomikoen eraikuntzan zeregin garrantzitsua betetzea, irabazi asmoa duten sektore pribatuko alternatibak izango direnak, beste faktorearen artean, adminis-

10 Martxoaren 29ko 5/2011 legearen arabera, bere kideen interesa, eta interes ekonomiko edota sozial orokorra bilatzen duten entitateak dira. Eta definitzen duten printzipioen artean, aukera-berdintasuna eta lana, familia eta norberaren bitzita uztartzea daude.

trazioak babes egokia ematen badu. Dena den, sakonago ezagutu behar da oraindik ea horiek definitzen dituzten elementuek eta horien eguneroko funtzionamenduak dagoeneko txertatuta duten ikuspegi feminista, edo berriro formulatu beharko ote diren.

Etxeek Gipuzkoan betetzen duten paperari dagokionez, aipatu beharra dago, beste testuinguruetan gertatzen den bezalaxe, sistema sozioekonomikoaren amaierako doiketa egiteko esparru gisa eta oinarritzko ekonomia-unitate gisa jarduten dutela, bizitzari eusteko erantzukizuna bere gain hartuz, eta horretarako beharrezkoak diren erabakiak hartuz. Denboraren erabilerari buruzko inkestek etxeek, ordaindu gabeko lanari eskaintzen dioten denborari dagokionez (zainketei denbora gehiago eskaintzen zaie, ez da konpentsatzen etxeko lanari eskaintako denboraren murrizketa), rol ekonomiko gero eta txikiagoa betetzen dutela adierazten badute ere, etxeen paper sozioekonomikoa murrizten ari dela ondorioztatzea eragozten duten hiru gai daude: Lehena da ea zein mailatan lortzen duten inkesta horiek benetako jarduera islatzea, zereginen aldiberekotasuna (batez ere, zainketei dagokienez) eta intentsitatea zein den jakiteko dauden zailtasunak zein diren jakinda. Hau da, izan liteke benetan denbora murrizketarik egon ez izana eta, benetan murriztu bada, lana areagotu delako izan daiteke. Badi-rudi erabilitako metodologiaren bitartez lortutako datuen desberdintasun handiak ontzat ematen duela hipotesi hori. Datuak jarraian dagoen taulan ikus daitezke:

Merkataritzako okupaziodun herritarrek zaintza lanetan emandako denbora	Uztartzeari buruzko inkesta (orduak)		Iritzi politiko eta kontzeptuala	
	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
Etxeko lana	2,3	1,3	2:40 (soziala) ^a	1:07 (soziala) ^a
Adingabeak zaintzea	4,7	2,8	2:17	01:37
Adinekoak/mendetasun egoeran dauden pertsonak zaintzea	4,3	1,9	(parte hartzaile bakoitzeko) ^b	(parte hartzaile bakoitzeko) ^b

Iturria: Eustat. Uztartzeari buruzko inkesta eta denboraren erabileraren gaineko inkesta, 2008.

a Biztanleria guztiak, batez beste, eskaintzen dion denbora da, etxeko lana egin ala ez egin

b Benetan zaintzen duen biztanleriaren zati horri dagokio

Bigarrenik, ez da funtsezko aldaketarik gertatu ongizatea sortzeko prozesuaren amaierako koordinazioan eta kudeaketa rolean, monetizatutako eta monetizatu gabeko mailen arteko engranajearen koordinazioan eta kudeaketan, eta merkatuan eskuratzen ez den horren guztiaren proportzioan, ez baitira sortu ordezeko gizarte-egiturarik eta merkatuak eta estatuak bere gain hartzen ez dituztelako. Bestela esanda, bizitzari eusteko erantzukizuna pribatizatuta dago oraindik (etxean) eta, nagusiki, feminizatua dago. Hirugarrenik: kanpora ateratzeko eta merkantilizatzeko prozesua oso era desberdinetan gertatzen da gizarte-maila desberdinetan. Desberdintasun horiek krisialdiarekin areagotuko direla uste dugu: talde batzuk gero eta mendetasun handiagoa izango dute merkatutik kanpoko ekoizpenarekiko, beste batzuek, aldiz, haien diru-sarrerak handituko dituzte eta bizitzako esparru gero eta handiagoak merkantilizatuko dituzte. Dena den, besteren artean, gizarte-mailaren arabera banatutako denboraren erabilerari buruzko daturik ez izateak horri buruzko datu kuantitatiboak ematea eragozten du.

4.2. Lanen banaketa desorekatua

Emakumeek eta gizonek Gipuzkoan bere gain hartzen dituzten erantzukizunek historikoki lanaren sexuaren araberako banaketaren kontzeptuaren baitan jaso den desberdintasuna azaltzen dute; hala ere, aldaketa batzuk egon dira. Jarraian dagoen taulan Gipuzkoan, 1993 eta 2008 bitartean, lan-zamak sexuaren arabera izan duen eboluzioa ikus dezakegu ¹¹

¹¹ Denbora sozialari buruzko datuak dira, hau da, biztanleria guztiak egindakoa, biztanle kopuru osoarekin zatituta; beraz, lan horiek egiten ez dituzten biztanleak barne hartzen ditu. Badago benetan lan horiek egiten dituen biztanleriak soilik eskaintzen dion denbora barne hartzen duen beste neurketa bat. Ordaindutako etxeko lanean alde gutxi daude, gehienek (ia gehienak emakumeak dira) zenbait denbora eskaintzen baitiote lan horri. Merkatuko lanean eta zainketetan, aldiz, badaude aldeak. Hori horrela, adibidez, zaintzen duten emakumeek zainketei ordu 1 eta 59 minutu eskaintzen dizkiete, gizonek, berriz, ordu 1 eta 37 minutu.

Lan-zama Gipuzkoan, motaren eta sexuaren arabera


		1993	1998	2003	2008	Cambio 2008-1993
Ordaindutako lana eta prestakuntza	emakumeak	2,09	2,24	2,37	2,43	0,34
	gizonak	4,37	4,39	3,44	3,56	-0,41
	<i>genero-arrakala</i>	-2,28	-2,15	-1,07	-1,13	-1,15
Etxeko lanak (ord. gabeak)	emakumeak	4,19	3,38	3,3	3,37	-0,42
	gizonak	1,01	1,02	1,22	1,3	0,29
	<i>genero-arrakala</i>	3,18	2,36	2,08	2,07	-1,11
Etxeko pertsonak zaintzea (ord. gabeak)	emakumeak	0,28	0,22	0,3	0,36	0,08
	gizonak	0,1	0,14	0,1	0,18	0,08
	<i>genero-arrakala</i>	-0,18	-0,08	-0,2	-0,18	0
Ordaindu gabeko lana, guztira	emakumeak	4,47	4	4	4,13	-0,34
	gizonak	1,11	1,16	1,32	1,48	0,37
	<i>genero-arrakala</i>	3,36	2,44	2,28	2,25	-1,11
Lan-zama orokorra	emakumeak	6,56	6,24	6,37	6,56	0
	gizonak	5,48	5,55	5,16	5,44	-0,04
	<i>Genero-arrakala</i>	1,08	0,29	1,21	1,12	0,04

Iturria: Eustat, Denboraren Erabilera buruzko Inkestak, hainbat urte

Emakumeen kasuan, enpleguari eskainitako denborak gora egin du eta, neurri berean, murriztu egin da ordaindu gabeko lanari eskainitakoa (34 minutu); eta horrek pixka bat aldatu du bere osaera, zainketak gehiago nagusitzen baitira. Gizonen dagokienez, murriztu egin da enpleguari eskainitako denbora (41 minutu) eta gorakada txikia egon da ordaindu gabeko lanari eskainitako denboran (37 minutu), etxeko lanetan gertatu da hazkundera, batez ere. Oro har, sexu bakoitzaren lan-zama orokorra ez da aldatu, baina emakumeek lan gehiago egiten jarraitzen dute (ordu 1 eta 12 minutu). Hau da, lan-zama orokorrak desberdina izaten jarraitzen du. Hala ere, lan-zama orokorraren osaeran antzematen da desberdintasunaren murrizketa txiki bat, batez ere merkatuko lanean jardutera gerturatu izanagatik (arrakala ordu 1 eta 15 min. txikiagoa da); arrakala oso garrantzitsua da oraindik

ordaindu gabeko lanean: emakumeen 2 ordu eta 25 minutu gehiago. So egin diezaiogun honi arreta handiagoz.

Lan zama, sexuaren eta motaren arabera, Gipuzkoa, 1993 eta 2008



Desberdintasun nabarmena dago gizonek eta emakumeek ordaindutako lanari (eta prestakuntzari) eskainitako denboran: 3 ordu eta 56 minutu, eta 2 ordu eta 43 minutu, hurrenez hurren. Horrek, gainera, bi desberdintasun batzen ditu: merkatu-okupazio tasa desberdinak (enpleguari eskainitako pertsona kopurua: gizonen % 57,9 eta emakumeen % 46,8 2011n), eta merkatuan daudenen artean, lanean emandako orduen desberdintasunak (gizonek ordu gehiago eskaintzen dizkiote lanari, 7 ordu eta 52 minutu; emakumeek, berriz, 6 ordu eta 41 minutu). Hala ere, merkatu-okupazioaren tasatan genero-arrakala murrizteko joera dago, maskulinoak behera egin duelako eta femeninoak gora egin duelako. Joera hori ez da nabarmen aldatu krisialdiarekin; hasi zenetik, emakumeena gelditu egin da eta gizonenak nabarmen egin du behera. Bi kasuetan, emakumeen tasak zertxobait

handiagoak dira Gipuzkoan 2000. urtetik aurrera, EAeko batez bestekoarekin alderatzen baditugu; gizonenak handiagoak izan dira historikoki.

Merkatu-okupazioan dagoen arrakalarik handiena 45 eta 54 urte bitarteko emakume eta gizonen artean gertatzen da; badirudi emakumeek merkatuan okupazio handiagoa izateak belaunaldien arteko desberdintasunari zor zaiola, biztanle gazteenen artean gizon hornitzailea / emakume etxe-koandrea eredu normatiboa aldatu delako. Dena den, denboraren erabilerari buruzko datuek erakusten dute, oraindik ere, indarrean daudela sexuaren araberrako rol ekonomikoak. Emakumeak merkatuan egotea sakonki baldintzatzen dute bizitzan zehar bere gain hartzen dituzten zainketekin lotutako erantzukizunek; gizonen kasuan, ez da hori gertatzen. Gizonen lehentasunezko atxikipena lana da oraindik (hori, adibidez, merkatuan okupazio handiegia izatearen fenomenoaren maskulinizazioan antzeman dezakegu), eta gizon askorentzat, enplegua ez da soilik lehentasunezko atxikipena, bakarra baizik. Hori horrela, merkaturako lanik gabe egitearen (langabezian edo erretiratuta) eta ordaindu gabeko lanik ez egitearen errealitatea, erabat maskulinizatuta dagoen errealitatea da. Are gehiago, emakumeen rola ez da ordaindu gabeko lana egitearena, baizik eta etxeak aurrera egin dezan gizonak egiten ez dituzten gainerako lanak egitea (hau da, haien lanak beste pertsonen egoeren arabera baldintzatzen dituzte, hein handiagoan). Hori horrela, uler dezakegu krisialdia dela-eta 45 urtetik gorako emakumeen segmentuaren merkatu-jardueraren tasak gora egin izana. Horren ildotik, hein handi batean, berdin-berdin mantentzen dira desberdintasun-rolak, emakume gehiagok merkatuan jardun arren.

Ordaindu gabeko lanaren genero-arrakala ordu bete baino gehiagoz murriztu da azken 15 urteotan; hori emakumeek gizonak gehiago eskaini dezaten gutxiago eskaini dutelako izan da, hala ere. Horretaz gainera, ordaindu gabeko lana, oraindik, emakumeen gain dago: 2008an Gipuzkoan emakumeen ordaindu gabeko lanari eskainitako batez besteko denbora 4 ordu eta 13 minutukoa zen; gizonen kasuan, ordu 1 eta 48 minutukoa zen. Hori ez da belaunaldien araberrako desberdintasun bat, ikasleen artean ere antzematen delako, eta handiagoa delako merkatuan lanik ez dutenen artean (langabezian edo erretiratuta dauden biztanleak). Azken batean, etxeko lanetan eta zainketetan berdintzeko faktorea merkatuan lana egitea da: enplegurik ez dagoenean, bai emakumeek, bai gizonak denbora gehiago


eskaintzen diote etxeko lanari, emakumeek askoz denbora gehiago eskaintzen badiote ere.

Horretaz gainera, etxeko lanen erantzukizunean segregazio handia antzematen da oraindik: guztiz feminizatuak dauden zeregin batzuk daude, hala nola sukaldatzea, garbitzea eta arropa garbitzea; gizonak nagusi dira kudeaketan eta aisialdi antzekoetan.

4.3. Lan-merkatuko desberdintasunak

Merkataritzakoa ez den esparruan bizi den sexuagatiko desberdintasunak, ondorio larriak ditu oraindik lan-merkatuan parte hartzeari dagokionez, desberdintasunak birsortzen eta eratzen dituen lekua baita oraindik. Hori horrela, desberdintasunak antzematen dira emakume eta gizonen artean, enplegura sartzeari, bertan irauteari eta bertatik irteteari dagokionez. Aipatzekoak dira merkatu-jarduera tasa desberdinak. Genero-arrakala murrizteko joera antzeman den arren, gizonena murriztu delako eta emakumeenak gora egin duelako, esanguratsua da oraindik arrakala (ehuneko 13,8 puntu). Joera hori mantendu egiten da krisialdian zehar eta ez dago desberdintasun aipagarririk EAeko datuekin.

Lan-merkatuan egotearen tasa, sexuaren arabera, Gipuzkoa, 1993-2011



Iturria: Eustat, Biztanleriaren inkesta jardueraren arabera, hainbat urte

Krisialdi aurretik, ixten ari zen langabezian zegoen genero-arrakala, emakumeentzat eta gizonentzat izugarri murrizten ari zelako, emakumeentzat batez ere. Joera hori berbera zen EAE osoan, baina datuak hobeak ziren Gipuzkoaren kasuan. Krisialdia hasi denetik, langabeziak gora egin du sexuentzat, gizonen kasuan hazkundera handiagoa izanik, historikoki egon den genero-arrakala alderantzikatuz. Dena den, krisialdiaren eragina maskulinizatutako industria-sektoretik (enplegu-erregulazio espedienteen eragin handiena izan duena da oraingoz) zerbitzuen sektorera iragan ahala, emakumeen langabeziak erritmo azkarragoan gora egitea espero dezakegu. Iraupen luzeko langabeziak nabarmen egin du gora EAEn; hazkunde handiagoa izan da gizonen kasuan, baina emakumeenak ere gora egingo duela aurreikus daiteke.

Emakumeek enplegurako sarbide txikiagoa dute, eta baldintza txarragotan egiten dute. EAEn lanaldi partzialeko enplegua oso feminizatua dagoen errealitatea da (gainerako autonomia erkidegoetan baino gehiago), eta emakumeen proportzioak gora egiten jarraitzen du. Behin-behinekotasuna ere handiagoa da emakumeen artean, eta horrelako kontratuen genero-arrakala (ia 6 puntukoa: emakumeen % 25,9, gizonen % 19,8aren aurrean) espainiar estatukoa baino handiagoa da (horrek irakurketa positiboa izan dezake EAEn enpleguaren suntsiketa txikiagoa gertatu delako, eta, zalan-tzarik gabe, aldi baterako kontratuetan biltzen delako). Informaltasunak ere eragin desberdina du sexuaren arabera. EAEn, 2009an, kontraturik gabeko soldatapeko 10 pertsonatik 9 emakumeak ziren. EAEn okupazio-segregazio prototipikoa antzeman daiteke. Sektoreka: industriaren maskulinizazioa (ehungintza, larrugintza eta oinetakoen sektoreak dira salbuespen bakarrak) eta zerbitzu-sektorearen feminizazioa (enplegatutako 10 emakumetik ia 9k jarduten dute sektorean). Adarka: hezkuntza-sektorearen feminizazioa (bertan enplegatutako 10 pertsonatik ia 7 dira emakumeak), lanbide heziketan eta unibertsitatean izan ezik; gizarte-zerbitzuen feminizazioa (garbiketa emakumeek monopolizatuta dago; OLTn, klinika-laguntzaileetan eta fisioterapietan % 90 baino gehiago dira; eta gizarte-laguntzaileak); eta osasungintza sektorearen feminizazioa (segregazio bertikala egon arren).

Desberdintasun eta diskriminazio esparru anitzak (okupazio-segregazio bertikala eta horizontala, lanak feminizazioarekin duten harremanaren arabera modu desberdinean baloratzea, eta pertsonaren sexuaren arrazoi

hutsagatik dagoen diskriminazio ulergaitza), orduko soldatari dagokionez, soldata-arrakala handia sortzeko elkartzeko dira: emakumeena gizonenaren % 82,7koa da). Lanean emandako bolumen desberdina batuz, urteko ordainsari gordinaren aldea handiagoa da: ordainsari maskulinoaren % 78. Soldata-arrakala hori murriztuz joan da, hein handiagoan urteko ordainsari gordinean, orduko ordainsarian baino. Baina, egun, hori oso kezagarria izateaz gainera, handiagoa da maila profesional txikiagoko lan-geruzatan eta kontratu ezegonkorren kasuan. Horrek aurrerago aipatuko ditugun arrisku handiagoak sortzen ditu, pobreziari eta ongizate faltari dagokionez.

4.4. Migrazio-estatusak eragindako zaurgarritasuna

Aipatu beharra dago lan-merkatuari dagozkion datuak oso desberdinak direla herritartasunaren arabera (Gipuzkoako datuak, 2011ko IV. hiruhilekoa). Merkataritza-jarduera askoz handiagoa da EBkoak ez diren atzerritarren kasuan. Horrek erakusten du presa dutela diru-sarrerak lortzeko, eta genero-mandatu modu bereizgarrian gertatzen dela (emakume migratzaileak ezin dira etxekoandarearen rolera atxiki, hori nahi duten ala ez alde batera utzirik). Aldi berean, EBtik kanpoko biztanleria migratzailearen modu oso gogorrean erasaten dio langabeziak. Hori horrela, genero barneko desberdintasuna generoen artekoa baino handiagoa da: espainiar herritartasuna duten emakume eta gizonen langabezia-tasan dagoen aldea 1,9 puntukoa da, gizonen tasa mesedegarriagoa dutela; emakumeen artean, 19,1eko aldea dago, espainiarren tasa EB kanpokoena baino hobea dela. Izan ere, EAE herritartasunaren araberrako alde handiena duten autonomia erkidegoen artean, 4. a da gizonen tasari dagokionez, eta 5.a emakumeenari dagokionez. Datu hori benetan kezagarria da, eta ezin da banandu beste zenbait datuz, esaterako EAEn 2005ean etxerik ez zuten bi pertsonatik ia 1 atzerritarra zela adierazten zuten datuez (etxerik ez zuten emakumeen % 53,4). Orduan horri horrela bazen, krisialdiarekin egoerak okerrera soilik egin ahal izan du, are gehiago kontuan hartzen badugu langabezian dagoen biztanle gehienek aurrera egiteko duten baliabidea familiaren koltxoia dela, eta horiek horrelakorik ez dutela. Datu horrek ere zalantza handiak sortzen ditu emakumeen eta gizonen lan-egoerari buruz modu homogeneoan pentsatzea komenigarria ote denaren inguruan, edota feminismitik

gizonen eta emakumeen arteko aldeak desberdintasunaren bektore nagusi gisa hartu behar ote denaren inguruan.

	Merkatu-jarduera	Merkatu okupazioa	Desempleo
EB kanpoko herritartasuna duten emakumeak	% 76,9	% 52,6	% 31,6
Espainiar herritartasuna duten emakumeak	% 51,5	% 45,1	% 12,5
EB kanpoko herritartasuna duten gizonak	% 82,5	% 49,6	% 39,9
Espainiar herritartasuna duten gizonak	% 63,7	% 57,1	% 10,3

Iturria: EIN Biztanleria Aktiboaren Inkesta, hainbat urte

Aipatu beharra dago ez dagoela daturik lan-merkatuan joera sexualagatik eta genero-identitateagatik gertatzen den diskriminazioa ulertzeko, ezta sexual bestelako diskriminazio-aldagaiekin duen eragina gurutzatzeko ere.

4.5. Merkatuaren eta merkatua ez denaren arteko elkarreragina

Merkatuko eta merkatutik kanpoko mailen arteko elkarreragina errazteko zailtasunak, eta biek dakartzaten erantzukizun kontrajarriak orekatzeko zailtasunak, gehienetan, emakumeek pairatzen dituzte. Hori jartzen du agerian familia zaintzeko eskatutako lan-utzialdien feminizazio handiak, antza, goraldia izan du krisialdia hasi zenetik (hemen geure buruari galdetu beharko genioke ea, enplegu gutxi dagoenean, ezaugarri maskulino gisa duen aintzatespena indartzen ote den). Oraindik ere salbuespenak dira amatasun-baimenaren zati besterengarria hartzen duten gizonen kasuak; hala ere, EAE da hori egiten duten gizonen kopururik handiena duen autonomia erkidegoa (% 3,9). Horrek horrela izaten jarraitzen du, gizonen iritziz, ibilbide profesionalari dagokionez, baimen hori baliatzea emakumeen iritziz bezain kaltegarria ez bada ere.

Hala eta guztiz ere, Gipuzkoan, genero-mandatuak ez dirudi beste tesuinguruetan bezain zurruna, batez ere goranzko norabidean (gizon gehiagok eskatzen dute lan-utzialdia familiako kideak zaintzeko seme-alabak zaintzeko baino). Eta aitatasun-baimena eskatzen duten gizonen ehunekoak beste eskualdeetakoak baino askoz ere handiagoa da (% 73 2008an), nahiz eta oraindik hobetzeko bide luzea dagoen.

Dauden eskubideei dagokienez, aipatu beharra dago, beste autonomia erkidegoekin alderatuta, egoera hobea dela uztartzeko eskubideei, zaintza zerbitzu publikoei eta mendetasun legearen aplikazioari dagokienez. Dena den, badira fenomeno kezagarriak, esaterako, gizonak uztartzeko eskubideak baliatzea sustatzeko neurriak barne hartzen dituen hitzarmen kolektiborik ez egoteak, edo hitzarmen kolektibo batzuetan sexuagatiko berdintasun gaietan indarrean dagoen legediaren aurka doazen neurriak egotea, berdintasuna kaltetuz (2007an Emakundek egindako azterlanaren arabera: uztartzeari buruz sartutako klausulen % 11,9, enplegu- eta lan-baldintzei buruzko klausulen % 30,4 eta tratu berdintasunari eta sexuagatik ez diskriminatzeari buruzko klausulen % 8,1 indarrean dagoen legedia urratzen zuten. Informazio hori eguneratzea komeni da).

Oro har, lana, familia eta norberaren bizitza deritzona uztartzeko arazoak daudela hautematen da. Horri buruz, eta Eustatek egindako Inkestaren arabera, Gipuzkoak du EAeko gogobetetasun-mailarik txikiena. Zailtasun handienak adinekoak zaintzeko orduan daude, eta, ondoren, seme-alaba adingabeak zaintzeko orduan (bi kasuetan pertsonen erdiak baino gehiagok maila ertain edo altuko zailtasunak ditu). Jarduera pertsonalei eta etxeko lanei dagokienez, biztanleriaren erdia baino zerbait gutxiagorentzat, zailtasunak daude.

Aipatu beharra dago, Euskadin lanen munduan nolabaiteko eboluzio positiboa zegoela banaketa berdintasun handiagoz egiteari dagokionez, eta zaintza-erantzukizunik ez duen langile estandarraren irudiarekin hausteari dagokionez; hala ere: (1) hau, argi eta garbi, ez zen nahikoa: lan-merkatuak langile txanpinoiaren estandarraren inguruan funtzionatzen jarraitzen du, irudi horretan hausturak gertatzen hasi badira ere; emakume eta gizonen lan-ibilbideak desberdinak dira bere gain hartu duten rol ekonomikoaren arabera; emakumeek lanarekiko dituzten lehentasunak oraindik ere gizonen eragiten ez dieten faktoreen arabera dira: zaintza-erantzukizunak (inguruko beharrei erantzutea eta, ahal den neurrian, zaintzarako konponbide ahalik eta gogobetetzailenak lortzea), eta diskriminazio txikiagoko ingurunea bilatzea (sektore publikoa eta soldatapeko lana nahiago dute emakumeek). (2) Zenbait dimentsiotan egoerak okerrera egin du (lanaldi partzialeko enpleguak, adibidez). (3) Genero barneko desberdintasunek gora egin dute (migrazio-estatusa da bektore gakoa).

Egun, prozesu honetan krisialdiak etenaldi bat eragingo ote duenaren, eta desberdintasunez betetako sexu-markadun rola egonkortuko ote dituenaren galdera gehitu behar dugu (famiaren ongizate osoaren gaineko erantzukizuna ezaugarri duen rol femeninoa; enpleguarekiko lehentasunezko atxikipena edota atxikipen bakarra duen rol maskulinoa); genero barneko desberdintasunak areagotuko ote dituenaren ingurukoa ere gehitu behar da.

4.6. Baliabideetara heltzea

Sistema sozioekonomikoa egindako lanaren ikuspegitik begiratzeaz gainera, beharrezkoa da beharrak asetzeko baliabideetara heltzeko ahalmenaren ikuspegitik begiratzea. Gipuzkoan, emakumeen batez besteko errenta (2010eko euskal estatistika urtekariaren arabera) 11.857€koa da eta gizonena 23.224€koa (% 48,9ko arrakala). Emakumeen herena ez da heltzen urtean 1.500 irabaztera (% 32,77), gizonen dagokien ehunekoa % 12,85koa da. Emakumeen erdia (% 53,3) urteko 9.000€tik beherako diru-sarrerak dituzten artean daude; multzo horretan dauden gizonak % 21,97 dira. Horrek autonomia finantzarioa ez izatearen panorama kezkarria jartzen du agerian, orokorrean, baina moduz askoz gogorragoan eragiten die emakumei. EAEko emakumeen % 47,1ak ez du bakarrik bizitzeko behar adina diru-sarrerarik lortzen (mendetasunaren pobrezia mota hori gizonen kasuan baino lau bider handiagoa da emakumeen kasuan). Horrek berriro ere agerian jartzen du zein garrantzizkoak diren etxeak ongizatea kudeatzeko eta baliabideak koordinatzeko eremu gisa. Hori erakusten du ere, per capita errentari dagokionez, egoera hobean dauden etxe moten artean hedatutako familien egotea. Eta emakume bakarra bizi deneko etxeen ia erdia pobrezia edo ongizaterik ez izateko arriskuan egotea. *Pusketen ekonomia* deritzogun fenomeno da hori; horren arabera, gizabanakoa merkaturatzearen bitartez buruaskitasuna lortzeko ideala betetzetik ez dagoenean, baliabideak (dirua, denbora, lekuak, informazioa, eta abar) komunean jartzen dituzten sareak dira funtzionatzen dutenak.

Pobrezia arriskurik handiena (pobrezia oinarrizko beharrak asetzeko ezintasun gisa ulertuz) guraso bakarreko familiek (gurasoa eta seme-alabak) eta, gero, bakarrik bizi diren emakumeek jasaten dute. Ongizaterik ez izateko arriskurik handiena bakarrik bizi diren emakumeek dute eta, gero,

ama bakarreko familiek. Zehatzago arituta, esan daiteke EAEko per capita errentarik txikienak ama bakarreko familietan daudela, pertsona nagusiak 45 urtetik behera dituenen eta okupazio egonkorrik ez duenean. Gipuzkoako egoera EAEkoa baino zertxobait hobea da, baina Donostian, beste eskualdeetan baino nabarmen okerragoa da.

Gipuzkoan, errentan sexuagatik dauden alderik handienak transferentzian gertatzen dira, % 58,9ra helduz (2.517€ emakumeek, 4.257 gizonen; bizitzan zehar egindako ekarpenak modu desberdinean baloratzen direla islatuz). Lanetik eratorritako errenten kasuan, aldea % 47koa da (7.194€ emakumeek, 15.320 gizonen; enplegurako sarbide txikiagoa dutelako eta laneko diskriminazioak eraginda).

Lanetik eratorritako errentetan dauden aldeen ondorioz, EAEn pobrezia-aren feminizazioa gero eta handiagoa dela antzeman da. emakumeen % 16,3 daude pobrezia arriskuan, eta gizonen % 12,8. Etxeei dagokienez, irudi *nagusizat* emakume bat dutenen % 45,9 pobrezia arriskuan daude, eta % 55,5 ongizatea ez izateko arriskuan. Datu horiek azpimarratu egiten du enplegurako sarbidea bermatzeaz gainera, kalitatezko enplegurako sarbidea bermatzea ere garrantzitsua dela.

Dena den, prestazioak eta bestelako transferentziak aintzat hartuz gero, egoera nabarmen hobetzen da. Gipuzkoan, ordaindutakoaren arabera prestazioez gain, aldian behingo prestazio zerbitzu hauek daude: diru-sarrerak bermatzeko errenta, gizarte-ongizaterako funtsaren pentsioa, LISMIaren prestazioak, baliaezintasun eta erretiroagatik ordaindutakoaren arabera ez diren pentsioak, banako laguntza ekonomikoa, Ordaindutakoaren Araberakoa ez den Pentsioaren Etxebizitzagatik Osagarria, etxebizitzagatik prestazio osagarria, familia ingurunean zaintzeko prestazioa, laguntza pertsonalerako prestazioa. Transferentziak aintzat hartzen baditugu, soilik emakumea *irudi nagusizat* dutenen % 8,2a dago pobrezia arriskuan eta % 21,8a ongizatea ez izateko arriskuan (*irudi nagusia* gizona denean, % 3,3 eta % 12, hurrenez hurren). Horrek agerian jartzen du prestazioak ongizatea hobetzeko gakoa direla. Hala ere, ez dute genero-arrakala murrizten (erretiroagatik eta bizirauteko pentsioak handiagoak direlako gizonen kasuan). Baliagarriagoak dira pobrezia aurre egiteko, ongi izate ezari aurre egiteko baino. Horren ildotik, kezkarria da 2012an pentsioei eta bestelako prestazioei zuzendutako aurrekontua % 42 txikiagoa izatea.

5. II. BERDINTASUN PLANERAKO IRADOKITZEN DITUGUN ESKU-HARTZERAKO ESTRATEGIAK

Ekonomiaren aurrean ikuspegi feminista desberdinak egotearen ondorioz, errealitate zehatz baten aurrean, herri politika zehatzen aurrean, planteamenduak, korapiloak eta proposatzen diren aterabideak desberdinak izango dira. Atal honetan, mugimendu feministetan egun, ekonomia- eta lan-politikaren hiru alderdi nagusiren inguruan (zerga-politika, lan-eskubi-deak eta baliabideetara heltzea) dauden eztabaidak aurkeztuko ditugu, eta horien aurreko aterabideak proposatuko ditugu, bizitzaren iraunkortasuna ekonomiaren erdian jartzearen aldeko apustua egiten duen begirada feminista batetik.

5.1. Zerga-politika

Mugimendu feministaren baitan zergen inguruan eztabaida gutxi daude, eztabaida gabeziak hitz egin dezakegu, beraz, mugimendu feministari dagokionez; eztabaida gehienak akademiaren baitan gertatzen dira kasu honetan. Eztabaidatzen ari diren gaien artean daude:

5.1.1. Gastu politikaren + diru-sarreraren politikaren arteko oreka

Iritzi feminista guztiak bi premisatan datoz bat: batetik, defizita ez dela, berez, negatiboa. Izan ere, deflazio-politikek, esan bezala, generoan eragin negatibo nabarmena dute. Bestalde, defizita kontrolatzea beharrezkoa denean, hori diru-sarrerak handituz eta gastua berriro banatuz egin behar dela. Ez da inoiz izaera neoliberalak duten, eta aipatu joera pribatizatzaileak eta arrisku-joerak ekarriko duten politiken bidez kontrolatu behar.

Feminismoak ukatu egiten du defizita (aurrekontu-ekitaldi jakin batean, sartzen den dirua baino gehiago gastatzea), berez, txarra denik. Izan ere, estatuak enplegua sortuz eta *ekonomia erreala* sortuz esku hartzeko egi-

ten diren eskariak (feminismo *integratzaileenak* babesten dituenak), edota zerbitzu publikoak, eskubide unibertsalak babes ditzan egiten diren eskariak, eta bizitzaren arriskuak sozializatuko dituzten, eta bizitzari eusteko erantzukizuna kolektibizatutako duten bestelako mekanismoak ezartzeko eskariak, defizita sortzea eskatzen dute. Hau da, krisialdi garaitan, defizita ez da anatema bat. Izan ere, defizit txikia nahi bada, ez dira gastuak murriztu behar, aldiz, diru-sarrerak handitu behar dira eta gastu publikoa berriz banatu behar da.

Analisi holistiko hori (gastuak eta diru-sarrerak) egiteko gaitasuna lukeen proposamen hori generoarekiko sentiberatasuna duten aurrekontuena da. Proposamen hori ez da, inolaz ere, unitarioa; aitzitik, hainbat eztabaida hartzen ditu barne, horien artean, bi izanik bereziki garrantzitsuak:

- 1/ Zer ulertzen dugu generoarekiko sentiberatasuna duten aurrekontuei buruz hitz egiten dugunean?
 - Arreta emakume eta gizonen gainean dagoen eragin desberdina ikustean jartzen dutenak (behar praktikoei eta interes estrategikoei arreta eskaintzea)
 - Gaitasunen gaineko eragina (eta leku desberdinetan dauden subjektuek horiekiko duten helmena) ebaluatzen dutenak
- 2/ Generoarekiko sentiberatasuna duen aurrekontu bat egitea prozesu politikoa edo teknikoa al da?
 - Erakundeek egindakoa (generoaren gaineko eraginaren analisia) edota kanpoko adituek egindakoa (akademia)
 - Biztanleriak egindakoa: herritarrek kontrolatzea, partaidetza moduak (zuzeneko demokrazia). Kasu horietan, aintzat izan behar da emakume anitzen partaidetza eta proposamen feministak egotea ez dela agerikoa bere kabuz, hau da, bultzatu egin behar dela.

Aurretik aipatu dugun iritziaren arabera, esan daiteke aurrekontu horiek koherentzia ahalik eta handienarekin egin ahal izateko, gaitasunen gaineko eragina ebaluatuz litzateke, eta horiek aurrekontu parte-hartzaileak egiteko proposamenara lotuz; arreta berezi jarri beharko litzateke emakume anitzen parte-hartzea eta horien proposamenak aintzat hartzeari, eta gaitasunak nola ahalbidetzen diren pentsatzeari dagokionez, monetizatu gabeko mailak aintzat hartzeari arreta eskainiz.

2011ko ekitalditik, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun Saila genero-ikuspegia txertatzen hasi da, 2014ra arte doan lanerako plan batean; horretarako, emakume eta gizonen arteko berdintasunari dagokionez, garrantzitsuenak diren programak hautatu ditu. Komenigarria litzateke prozesu horretan proposatu diren parametroetatik eragitea. Bestalde, Eusko Jaurlaritzak baieztatu du erakunde komunen diru-sarreraren ia % 95 Foru Aldundien transferentzietatik datozela; beraz, haiei dagokie generoaren gaineko analisia egitea.

Bigarren proposamenak izaera holistikoa (gastuak + diru-sarrerak) luke, eta zor publikoa ordaintzea eta kobratzea ezbaian jartzen ditu. Galdetzen da ea, nolakoa izan de zorra hartzeko prozesua (ea demokratikoa izan den edo ez), zertarako erabili diren maileguak (modu bidegabean aberasteko eta desberdintasunak handitzeko, edo kolektiboki ongizatea hobetu duten baldintzak sortzeko) eta zein kostu eta ondorio dituen hori ordaintzeak (bizi-maila orokorrean kaltetzearen bizkar egiten ote den). Gainera, zorpetze-mailei buruz hitz egiterakoan, emakumeekiko zor historikoa aintzat hartu behar dela adierazten da, ordaindu gabeko lanaren bitartez, baliabideak doan eman dituztelako eta kanpoko zorraren ordainketa finantzatu dutelako. Azkenik, zorraren ordainketarako eta zorra kobratzeko luzapen bat eskatzen da, kontu-ikuskaritza herritarra egiten den arte, eta zorra bidegabekoa dela ondorioztatzen bada (osorik, edo zati bat), haren ordainketa barkatzea edo ordaintzeari uko egitea eskatzen da.

5.1.2. Zerga-sistema

Maila akademikoan egin dira zerga-bilketak dituen genero-joerei eta -eraginari buruz, batez ere PFEZari dagokionez. Helburuetako bat litzateke genero-eraginaren eta bizitzaren iraunkortasunaren gaineko analisia zabaltea, PFEZ ez den bestelako bilketa moduak sartuz (zeharkako zergak, kapitalaren zergak, ondorengotza zergak, ondarearen zergak...).

Zuzeneko zergei dagokienez, nagusiki ohartarazi da zergek eragin berdina ez dutenaren inguruan, erregimena banakoa ez denean, eta eraginak desberdinak direnaren inguruan, egoera zibilaren ondorioz edota kide direnako familia motaren ondorioz. Hori horrela, zergek familia mota bat/bizikidetzak eredu batzuk hobaritzen ditu, eta ez besteak; gainera, eragin handia du emakumeen laneratzeko hobaritzeari edo ez hobaritzeari dago-

kionez (orokorrean, familia eredu eta lanaren sexuaren araberako banaketa eredu klasikoenak sustatzen ditu; horrek lehen aipatutako gizon hornitzai-learnen joera dagoela erakusten du). Gainera, antzeman da emakume gehiegi dagoela diru-sarrera guztiak lanaren errentatik lortzen dituztenen artean eta diru-sarrera txikieneko multzoetan.

Bestalde, zeharkako zergak (BEZ eta bestelakoak) eta kapitalaren zergak (sozietateen gaineko zerga, ondorengotza zerga, ondarearen gaineko zerga...) mugimendu feministen begiradatik kanpo geratu dira. Eztabaida -eza horrek eragin oso handia du, izan ere, emakumeak ez daude berdin ordezkatuta enpresa mota desberdinetan, edo tamaina desberdinetako enpreetan, eta ez dute sarbide bera kapitalei dagokienez; ez dituzte konsumo-eredu berak ere.

Eztabaidatu beharreko beste gai bat da ordaindu gabeko zaintza-lana ugalketaren gaineko zerga gisa hartzearekin lotutakoa da; zentzu bikoitzean esaten da hori: emakumeek lan-merkatura sartu aurretik *ordaindu* (egin) behar duten zerbait da, gizarteari egiten dioten ekarpen bat da (monetarioa ez izan arren), eta birbanaketan ondorio erregresiboak ditu, emakumeen denbora eta baliabideak gizarte osoari banatzen dizkiolako.

Aurkikuntza horiekin bat etorritik, egiten ditugun proposamen estrategikoen artean jartzen dute zerga-erreforma progresiboa proposatzean. Erreforma horrek jarraian aipatzen diren ezaugarriak izan beharko lituzke:

- Kapitala lanarekiko berriz banatzea, kapital handienetatik hasi eta txikienetaraino helduz, metatze-logikak bultzatutakoetatik elkartasun-logikak bultzatutakoetara, eta errentarik handienetatik errentarik txikienetara. Berriz banatzeak ondorio positiboak ditu bizitzaren iraunkortasunaren ikuspegitik, emakume gehiegi dituzte gizarte-segmentuetarantz berriz banatuko liratekeelako ere.
- Zeharkako zergak lehenetsi beharrean, zuzeneko zergen aldeko apustua egitea
- Zerga-eskubideak indibidualizatzea: zerga-sistema aipatu dugun eta harremanak dituen gizabanako horri zuzentzea, bizikidetzaren eredu batzuk besteen gainetik susta ez daitezela. Bereziki garrantzitsua da berrikustea PFEZaren baterako aitorpena egiteko aukera.

5.1.3. Gastu publikoa

Oro har, mugimendu feministetatik erakundeen ekintzen aldeko apustua, eta gastu publikoa sustatzearen aldeko apustua egiten da. Baina, nola uztartu daiteke hori babestu dugun deshazkudearen proposamenarekin? Gakoa da galdetzea ea zein gastu motaz ari garen, eta zein den bilatzen den amaierako helburua, baliabideak berriz kapitala metatzeko zirkuitura bideratzen ote dituen galdetzea.

Egungo krisialdi testuingurua bereziki ona da bi gauzari dagokienez: batetik, gastua berriz nola bana daitekeen pentsatzeko (berdintasunerantz eta zainketen sozializaziorantz jotzen duen gastua lehenetsiz, eta, orokorrean, mugimendu feministetatik arbuiatzen diren gastuetan inbertitu ordez, biziera ona sortzeko inbertitzea; hor sartzen da adibidez "zaintzeko inbertitzea eta ez hiltzeko inbertitzea" dion ideia). Bestalde, gastua eta inbertsioa zeri esaten diogun berriz hausnartzeko (adibidez, zainketetan dirua gastatzea inbertitzea litzateke, epe luzean ondorio onuragarriak ekartzen dituelako).

Bi proposamen-ildo nagusi daude:

- Gastua berriz bideratzea: bizitzaren iraunkortasunean eta berdintasunerantz aurrera egitean erantzukizun publikoa hartzea dakarten jardueratara bideratuz.
- Ongizate estatua finantzatzeko beharrezkoak diren baliabideak ematea

5.1.4. Ongizate estatua

Proposamen politikoek, pentsio sistemak pribatizatzeko joera gero eta handiagoa dute, eta baina birbanaketaren eta elkartasunaren ikuspegiaren aurrean banako kapitalizazioaren ikuspegia lehenesten duten sistema publikoekiko joera. Hau da, estatuak bakoitzak banaka ematen duena itzultzen du. Baina ekonomia elkar mendekotasun harreman gisa proposatzen badugu, feminismo haustaileenak egiten duen bezala, ezinezkoa da ekarpenak indibidualizatzea. Mugimendu feministak ez du iritzirik eman horren inguruan, baina funtsezkoa da iritzi bat ematea.

Mugimendu feministaren baitan, ongizate estatuaren inguruan dauden adostasunak eta desadostasunak jarraian dagoen taulan jasota daudenak dira:

Ongizate estatuarekin lotutako aldarrikapen feministak	
Oinarrizko printzipioak	<ul style="list-style-type: none"> • Elkartasun printzipioa (banako kapitalizazio printzipioaren aurrean: batasuna dago emakumeentzat kaltegarria dela aitortzeko orduan, prestazioei dagokienez, lan-merkatuko desberdintasunak errepikatzen dituelako) • Ideologia familistaren amaiera (elkartasuna/banako kapitalizazioaren arteko eztabaidaz gainera, beste oinarrizko printzipio bat dagoela argudiatzen da, gizon hornitzailea/ etxeoandrea arautzat hartzen duena)
Eskubide-subjektua	Harremanak dituen gizabanakoa (ez familia, orain arte izan den bezala, ez isolatutako gizabanakoa, neoliberalismotik proposatzen den bezala). Eskubideak indibidualizatzeko eta zainketak sozializatzeko proposamenaren pare doa
Eskubideetara heltzeko oinarria	<p>Hemen argitu gabeko eztabaida dago:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ordainketen araberako sistemarekin jarraitzea, ordainketaren ideia zabalduz, ordaindu gabeko zaintza-lana ere aintzat har dadin (adibidez, zainketetan jardundako urteengatik kotizatzea) • Ordainketaren araberako ikuspegitik, unibertsala den ikuspegira igarotzea <p>Elkar mendekotasunaren ikuspegitik, eta unibertsaltasun eta singularitate baldintzatan biziera ona kolektiboaren erantzukizuna izatearen aldeko apustutik, eskubideak unibertsalak izan behar dira eta ezin dira aurretik egindako ekarpenen mende egon. Eztabaida hori bereziki garrantzitsua da egungo testuinguruan, eskubideen ikuspegi unibertsalizatzailetik fokalizazio ikuspegira igarotzen ari baikara (eskubideek ez dute bilatzen bizitzaren baldintza komun unibertsalak bermatzea, orain bazterkeria egoerak ekiditeko prestazioak dira, baldintza bereziak eta, batez ere, zaugarriak diren talde zehatzetara zuzentzen direnak). Aldaketa horrek ondorio handiak ditu desberdintasunak handitzeari eta estatuak kontrolatzeko duen gaitasunari dagokionez (baldintzak betetzen direla etengabean justifikatzeko beharragatik, kontrolatzeko gaitasun hori ezbaian jarri da mugimendu feministetatik, emakumei eusteko modua izan baitaiteke)</p>
Estatuaren erantzukizuntzat jotzen diren ongizatearen dimentsioak	Estatuak zainketen ardura ere bere gain har dezan proposatzen da, osasungintzaren, hezkuntzaren eta pentsio-sistemaren arduraz gainera (lotuta dago zainketen ildoarekin eta zainduak izateko eskubideari buruzko proposamenarekin)
Zerbitzuak hornitzea	Joera pribatizatzailearen aurrean, kalitatezkoak diren eta zuzenean kudeatuko diren zerbitzu publikoen aldeko apustua egiten da (zerbitzuen hornidura ez pribatizatzea, estatuak ordaindu arren, eta ez gertatzea estalitako bestelako pribatizazio prozesuak). Hemen eztabaidatzen dena da ea hori estatuaren egitura klasikoetatik egin behar den, edo publikoa den hori kudeatzeko aparatu burokratiko eta administratiboa ez den kudeaketa modu berriren bat asmatu behar ote den (bizitzaren iraunkortasunaren ildoarekin lotura)

5.2. Lan-merkatua

Gai honen inguruan eztabaida gehiago egon da feminismoaren baitan, bai mugimenduei dagokienez, bai mundu akademikoari dagokionez. Sindikatuetan ere eztabaida ugari egon da, sindikalistek eta emakumearen idazkaritzek zeregin gakoa izan dutela. Egun mahai gainean dauden eztabaida eta proposamenak lau gairen inguruan bildu daitezke: enplegu berera heltzea, enpleguaren kalitatea eta enpleguko diskriminazioa, emakume migratzaileen ikuspegi utilitarista, eta enpleguaren eta ordaindu gabeko zainketen arteko harremana.

Lan-politika osoari buruzko gai gako bat da haren atzean dagoen, eta bilatzen duen logika: helburu nagusia enplegurako sarbidea sustatzea ote den, beste bideetatik ezabatzeko ahaleginik egingo ez den bizi-kalitatearen eta soldata bat izatearen arteko harremana dagoela jakintzat emanez; edo lan guztien antolamendu hobea bilatzen ote duen, bi norabideko aldaketak proposatuz: pixkanaka lotura zuzenagoa izatea biziera onarekin (alienatutako lanak murriztuz, denborak eta lekuak biziera onaren zerbitzura jarritz) eta modu bidezkoago batean banatzea (horien banaketa eta balorazioa berrikusiz). Jarraian estrategien inguruko eztabaida egiten saiatuko gara, bigarren helburu horretara zein neurritan gerturutzen diren balioetsiz.

5.2.1. Enplegurako sarbidea

Egungo testuinguruan, enplegurako sarbidea gakoa da, bizitzeko ezinbestekoak diren diru-sarrerak eskaintzen dituelako, gizarte-eskubideak ematen dituelako, eta kide izatearen edota identitatearen zentzua ematen duelako. Soldatarekin banako erosketak egitea ez den bestelako baliabideetarako bideak zabaltzearen egokitasunaren inguruan aurrerago hitz egingo dugu. Aurreko puntuan aipatu dugu gizarte-eskubideak enpleguari zein neurritan lotuta egon behar ote direnaren gaineko eztabaida. Eta enpleguaren inguruan identitatea eraikitzeari buruz, zainketei eta bizitzaren iraunkortasunari buruzko ildoetan esandakoa ekarri dezakegu gogora. Beraz, enplegurako sarbidea estrategikoa da eta, gaur egun, garrantzitsua da hori egitea; dena den, ez da jarraitu beharreko estrategia bakarra, eta ezin da beste estrategiekiko modu isolatuan pentsatu.

Sarritan, enplegurako sarbideaz hitz egiten denean, emakumeen enplegua handitzeko proposamenak egiten dira, nolabaiteko *enpleguengatiko konkurrentzian* sartuz. Ordaindutako lanaren eskasia dagoen testuinguru batean, konkurrentziaren logikan sar daiteke (emakumeak gizonen aurrean, bertakoak migratzaileen aurrean...). Funtsezko abiapuntua litzateke horrelako argudio eta estrategiak ekiditea.

Gaur egun enplegutik baztertuta dauden pertsonen (Gipuzkoan gero eta gehiago dira) enplegurako sarbidea sustatzeko bi bide nagusi daude:

- Dagoen enplegu-kopurua handitzea: horretaz gainera, hainbat ekimen abiaraziz lor daiteke:
 - Irabazi asmoa duten enpresatan enplegu-sorrera diruz laguntzea: horretarako, adibidez, gizarte segurantzako ordainsarietarako hoberiak emanaz. Estrategia horrek duen arazoa baliabideak merkatu kapitalistetara bideratzen dituela da, aurretik aipatutako helburuetako bat kontraesanez.
 - Ekonomia sozialeko erakundeetan enplegu-sorrera diruz laguntzea: hori bestelako logika ekonomikoak abiarazteko helburuarekin bat datorren estrategia gisa uler daiteke. Dena den, erakunde horiek benetan ikuspegi feminista txertatzen dutela bermatzeko irizpideak sartu beharko liriateke. Sustapen hori administrazioaren kontratazio-pleguetan entitate horiei lehentasuna emanaz, edo entitate horiei erosketa publikoak eginez gauza liteke.
 - Nork bere burua enplegatzea diruz laguntzea: lan-modalitate horrek batez ere emakumeak izan ditu hartzaile. Emakumeei autonomia eta malgutasuna eskaintzen diela argudiatzen da. Baina, gainera, emakumeengan inbertitzeak eragin biderkatzailea duela argudiatzen da, diru horrekin emakumeek tokiko ekonomia dinamizatzen duten jarduerak sortzen baitituzte. Hau da, diru publikoa inbertitzeko modurik errentagarriena da hori. Arazoa bikoitza da. Batetik, emakumeak modu instrumentalistan txertatzen direla, eta hori aurretik ezbaian jarri dugu. Bestetik, lan modalitate horrek ekonomiaren ulermen indibidualista areagotzen duela, eta gizabanakoak arrisku-maila handiak hartzen dituela bere gain, eta badi-rudi hori ez datorrela bat arriskuak sozializatzeko helburuarekin.

Horrelako gaiak aintzat izan behar dira Gipuzkoa Ekintzailea edo SARBIDE autoenplegua bezalako ekimenetan.

- Gastu publikoa handitzearen eta estatuak biziera onerako baldintzak ezartzeko orduan rol nabarmenagoa izateko proposamenaren haritik, enpleguak sor daitezke, sektore publikoan diskriminazio gutxiago dagoela ere onura gehigarria dela aintzat izanda (hau da, hori baliagarria litzateke desberdintasunari eta diskriminazioari aurre egiteko). Hemen, gakoa da ea zer nolako enpleguak sortzen diren, gizarteak behar dituen edo ez (ikusitako gastu publikoari eskainitako atalean jasotako desahazkunderi buruzko eztabaida).
- Bada nolabaiteko babesaren duen proposamen bat, estatuak *azken baliabideko enplegatzaile* gisa funtzionatzeko: lan-eskaintza ezartzeko beharrezkoak diren enpleguak sortuko direla bermatuz, batez ere krisialdi garaitan (langabeziak gora egiten duenean). Gizarte-sektoreetan enplegua sortzea proposatzen da, behar adinakoa izango den soldaterekin, baina merkatuko baina txikiagoa izango denarekin (adibidez, gutxieneko soldaterekin), enpresei konkurrentzia ez egiteko. Aldi berean, pertsonen prestakuntza ematea proposatzen da. Arazoa da merkatuari egiten zaion hondarrezko esku-hartze gisa proposatzen dela: merkatuak sortzen ez dituen enpleguak sortzen dira, metatze-prozesuak hala eskatzen duenean, lan-indarra asakatzen da; zer gertatzen da orduan ustez ezartzeko dituzten gizarte-beharrekin? Are gehiago, esan daiteke enpresak finantzatzen dituela nahi bezala erabiliko duten laneskua doan prestatzen delako. Feminismoaren zati handi batek estrategia hori defendatzen badu ere, zalantzan jarri daiteke horren egokitasuna.¹²
- Lanaldia murriztea (enplegu kopurua handitzea merkatuko lanak hartzen duen bizitzako denboraren guztizko bolumena handitu gabe): helburua merkatuko lana berriz banatzea den heinean, lanaldia beharrezkoa den arte murriztu beharko litzateke, lan-eskaintza guztia

12 Adibidez: Antonopoulos, Rania (2007), "The Right to a Job, the Right Types of Projects: Employment Guarantee Policies from a Gender Perspective", *Levy Economics Institute Working Paper 516*.zk Jarraian dagoen webgunean eskura daiteke: http://papers.ssrn.com/sol3/papers.cfm?abstract_id=1016197

xurgatu arte (ez litzateke aldez aurretik ezarriko murrizketa maila bat, baizik eta hori okupatu beharreko lanekuaren bolumenaren arabera litzatekeela). Horren inguruko eztabaida nagusiak zerikusia du lanaldiaren murrizketak soldaten murrizketaren antzekoa izan beharko ote lukeenarekin. Bi irizpide ezar daitezke horren inguruan: batetik ez da soldata-masa murriztu behar (soldatei eskaintzen zaien guztizko zenbakekoa), baina berriz bana daiteke; komenigarria litzateke lanaldia murrizteko proposamena soldaten arteko desberdintasunen inguruko eztabaidarekin lotzea. Bestalde, soldata horiek ongizate-maila egokietara heldu ahal izateko modukoak beharko lukete.

Azaldutako bi estrategiek ez dute zertan baztertzailerak izan. Hori horrela, bien konbinazio bat pentsatzeko aukera dago: lanaldia murriztea, ekonomia soziala bultzatzea eta zerbitzu publikoak sortzea.

5.2.2. Lanaren kalitatea eta diskriminazioa

Lortzen den enplegu kopuruaz gainera, horren kalitateak ere badu garrantzia. Hemen bi eredu historiko kontrajartzen dira: neoliberalagoa dena, haren kalitatea alde batera utzita enplegua bera sustatzen duena, beharrezkoak diren baliabideetara heltzeko bide nagusi gisa (adibidez, aseguru plan pribatuak ordainduz: medikoa, zahartzarokoa, ezintasunarena...). Eta lan baldintzak kontrolatzeko eta kolektiboarena bermatzeko eredu sozialdemokrata. Lehenengo ereduaren ohikoa da pobreak, baina langileak direnen irudia; hau da, enplegu bat baino gehiago duten arren, ongizatea bermatzeko gutxieneko diru-sarrerak ez dituztenak. Errealitate horrek gehiago erasaten die emakumeei.

Hori espainiar estatuan eta Gipuzkoan hedatzen ari den errealitatea izan daiteke, krisialdiaren esparruan eta dagoeneko azaldu dugun lanaren etxekotzean. Hori dela eta, beharrezkoa da enpleguaren andeatzea eta ezegonkortzea ekiditeko neurriak eratzeko, adibidez:

- Sektore publikoko lan-baldintzatan hobekuntzak egitea, sektore pribatuko lan-baldintzak ezartzeko erreferentea den heinean. Hobekuntza hori ez da soldatara mugatu behar. Feministotik salatu da gizonen lan-aldarrikapenak arreta handia jarri dutela, historikoki,

soldatan, eta alde batera utzi direla zentzu zabalagoan bizi-kalitatea-
rekin lotuago dauden bestelako aldarrikapenak (adibidez, baimenak
hobetzea, langileen zerbitzura dagoen malgutasuna hobetzea, lan
-osasuna hobetzea...).

- Lehiaketetara aurkezten diren entitateetako lan-baldintzei, irizpide
gisa, garrantzi handiagoa ematea zerbitzuak kontratatzeko edo eros-
ketak egiteko orduan.
- Soldata-harremana indibidualizatzeko prozesua gelditzea, hitzarmen
kolektiboen garrantzia eta indarra berreskuratuz (hori hitzarmenon
berrikuspenarekin batera gertatu beharko litzateke, indarrean dagoen
legediaren aurka doazen, eta bereziki, emakume eta gizonen arteko
berdintasunari buruzko legediaren aurka doazen klausulak ez dituz-
tela bermatzeko). Beharrezkoa da ere emakumeak (eta proposamen
feministak) sindikatuetan egotearen inguruko eztabaida, sindikatuen
eta mugimendu feministaren arteko loturaren inguruko eztabaida,
eta sindikatuak solaskide pribilegiatu gisa duten zereginaren inguruko
eztabaida zabaltzea (hau da: zergatik egiten dira gizarte-eztabaidak
lan-merkatuan betetzen den lekuaren, gobernuaren, patroien eta
sindikatuaren inguruan eraturako subjektuekin? Merkatuak mugitzeko
ez al da beharrezkoa ere bestelako subjektuen eraketarako bestelako
bideak aitortzea?).
- Indarrean dagoen Legeria betetzen dela bermatzea: sarritan, arazoa
ez dago lotuta soilik lan-araubidea kaskarragoa izatearekin, baizik eta
dagoena ez betetzearekin. Horri dagokionez, laneko ikuskaritzak ze-
regin gakoa du. Eta gai hori gaurkotasun handikoa da etxeko lanaren
sektorean, duela gutxi gizarte segurantzaren erregimen orokorrean
sartu denetik (ikus zainketen ildoan).
- Lanpostu bat betetzeko eskatzen dena (prestakuntza-maila, gaita-
sunak, eskarmentua, eta abar), horren araberrako lan-baldintzatan
gauzatzen dela kontrolatzea.
- Komenigarria litzateke lan sexualaren sektoreko baldintzen inguruko
eztabaida zabaltzea, historikoki ekonomia informalean ezkatututa
egon baita, eta gizarteak onartzen duen horrek huts egiten duenean

larrialdietarako lan-txoko funtzionatu baitu (hau da, krisialdi garaian izan liteke rol handiagoa betetzen egotea).

Azken finean, helburua enplegua ezegonkortzeko prozesua gelditzea da, ulertuz, lehen baieztatu dugun bezala, lana etxekotzearen eta bitzta ezegonkortzearen prozesu zabalagoen parte dela ulertuz. Zerikusia du soldata bat izatearekin, baina baita prestazio publikoetarako sarbidea eta etxebizitza baterako sarbidea izatearekin, gizarte-sareak egotearekin, bitzitzaren erritmoarekin, zainketen erantzukizunekin eta horiek kudeatzeko gaitasunarekin, eta abarrekin ere.

Laneko diskriminazioari dagokionez, bi gai aipatu behar dira. Lehenik eta behin, diskriminazio-ardatz anitzen arteko harremana aintzat hartu behar da. LANEk jarraian aipatzen diren diskriminazio moduak onartzen ditu¹³:

- Aspaldidanik onartzen diren diskriminazio moduak: sexuagatik, arraza edo etniagatik, migrazio-estatusarengatik, erlijioagatik eta gizarte-jatorriarengatik
- Duela gutxi onartu diren diskriminazio moduak: adinagatik, joera sexualagatik (genero-identitateagatik egiten den diskriminazioa bertan sartzen da), ezintasunagatik eta HIESagatik
- Hasi berri diren diskriminazio moduak: faktore genetikoetan eta bizi-moduetan oinarritutakoak

Joera sexualagatiko diskriminazioa eta genero-diskriminazioa bereziki lotuta daude sexuagatik diskriminatzearekin. Dagoeneko existitzen diren diskriminazioaren aurrean babesteko neurrien aplikazioa sustatu daiteke¹⁴.

13 La igualdad en el trabajo: afrontar los retos que se plantean. INFORME DEL DIRECTOR GENERAL Informe global con arreglo al seguimiento de la Declaración de la OIT relativa a los principios y derechos fundamentales en el trabajo. CONFERENCIA INTERNACIONAL DEL TRABAJO. 96. bilera, 2007. Txostena: I (B). Jarraian dagoen webgunean eskura daiteke: http://www.ilo.org/public/portugue/region/eurpro/lisbon/pdf/igualdad_07.pdf

14 Ikus, adibidez, Josefina Alventosa del Rioren IV. atala (2008), *Discriminación por orientación sexual e identidad de género en el derecho español*, MTAS, jarraian dagoen webgunean eskura daiteke: <http://www.oberaxe.es/files/datos/491178328f3bc/orientacion.pdf> eta 4 eta 5 puntuak: CGT *Guía jurídico-sindical* http://in-formacioncgt.info/juridico-sind/guias/guia-juridico-sindical-2011/CGT_CAP12.pdf

Bigarrenik, sexuagatiko diskriminazio moduei dagokienez, eta bereziki okupazio-segregazioarekin lotutako soldata-diskriminazioari dagokionez, aipatu beharra dago esku-hartzeko bide nagusia zein izan behar denaren inguruko eztabaida:

- Emakume eta gizonak sektore guztietan modu orekatuago batean egotea:
 - Eskuarki, ekintza positiboko neurriekin maskulinizatutako sektoreetan dagoen emakume kopurua handitzeko helburua azpimarratzen da. Berriro ere, gauza da ea nori zuzentzen zaizkion neurri horiek, eta zertan datzan. Irabazi asmoa duten enpresei hobariak edo diru-laguntzak emateaz ari bagara, baliabideak irabazi asmoa duen sektore pribatura bideratzen ari gara. Beste aukera da sexuen arteko oreka duten gizarte-ekonomiako entitateak sustatzea edo, administrazioak kontratatzen duenean, maskulinizatutako lanbideetan emakumean kontrata daitezten sustatzea.
 - Ekiteko beste bide garrantzitsu bat da beirazko sabaia ekiditeko helburua duena. Dena den, segregazio bertikalak *goitik* dauden mugekin du zerikusia, baina, batez ere, emakumeak segmenturik baxuenetan biltzearekin (*lurzoru itsaskorra* esaten zaio). Beirazko sabaira baliabide gehiegi (giza baliabideak eta baliabide finantzarioak) eskaintzeak, lekurik onenak dituzten emakumeen interesak mugimendu feministen lehentasunezko helburu bihurtzea dakar.
- Beste aukera da lanen balorazio bidezkoago baten alde egitea, balio berbera duten lanak berdin ordaintzeko arauari helduz. Eztabaida horrek garrantzi handiagoa hartzen du zainketen profesionalizazioaren aldeko apustuarekin, eta eskarmentuarekin hartutako gaitasunak eta ezagutzak aitortzearen aldeko apustuarekin (profesionaltasun agiriak igortzea).

5.2.3. Enpleguaren eta ordaindu gabeko zainketen arteko harremana

Esparru honetan lana, familia eta norberaren bizitza *uztartzeko* modu okerrean izendatutako eskubideak sartuko lirateke. Eztabaidak, hein handi batean, bi gai nagusiren inguruan biltzen dira:

- Zein helburu du eta zein da hori lortzeko estrategia? Estrategia desberdinak dakartzaten bi funtsezko jarrera daude. Lehenengoaren arabera, eskubide horiek *txanpinoi* langilearena bezalako langilearen irudi estandarra pixkana ezabatuko dute (eta, horren ildotik, borroka bat dago bizitza kapitalaren mende ez jartzeko, eta kapitalak bizitzaren beharrei erantzuten dieneko logika lehenesteko). Hori horrela, eskubideak *borrokatuz* eskatzea proposatzen da (bestela esanda, eremu horretan kapitala metatzearen eta bizitzaren iraunkortasunaren arteko gatazka egonkortzen dela egiaztatuz). Bigarrenak emakumeek enplegurako sarbidea izan dezaten baldintzak ezartzea gakoa dela dio, finantza-autonomia lortzeko eta gizarte-eskubideak lortzeko, eta horretarako enpresei komeni zaienaz konbentzitzeko argudioa erabiltzen dute, haien lan-baldintzekiko gogobetetasun handiena duten langileek gehiago ekoizten dutelako. Estrategia horiek elkarren artean bateraezinak ez diren arren, zenbait proposamen aintzat ez hartzea edo lehenetasun desberdinak jomugatzat izatea ekar dezakete. Adibidez, bigarrenaren kasuan, neurri bat izan liteke uztartzeko indarrean dagoen legedia hobetzen duten enpresak aitortzen dituen publizitate-marka bat sortzea (adibidez, Estatuko Berdintasunerako Idazkaritzak aitortzen duen "Berdintasuna enpresan" zigilua sortuz). Hori pentsaezina da lehenengo ikuspegiaren arabera (eta dokumentuan proposatzen den jarreraren arabera); lehenengo ikuspegiak, adibidez, lan-ikuskaritzaren jagoletzaren aldeko apustua proposatuko luke.
- Zein uztartze eskubide lehenesten ditugu? Lan-legediarekin lotutakoak ordaindutako lanari eskainitako denbora askatzen dutenak dira, zainketak hobeto antolatzeko aukera ematen dutenak. Oro har, denbora hori % 100ean ordaintzea eta % 100ean kotizatzea eskatzen da (ordaintzen ez bada, edo osorik ordaintzen ez bada, emakume eta gizonen arteko desberdintasunak betikitzen dira). Eztabaida prestazio horiek aukera askekoak izan behar ote direnaren, edo berdintasun handiagoa izango duen zainketaren kultura bat eraikitzeko estrategikoak izan daitezkeen prestazioak ote daudenaren inguruan galdetzean sortzen da. Ildo horretan gehien garatu den proposamena PPIINAK, Jaiotza eta Adopzio Baimen Berdinen eta Besterenezinen Plataformak egindakoa da: aitatasun eta amatasun baimen bestere-

nezinak (jaiotza eta adopzioa deitzen diete amatasun eta aitatasun biologikoaren ideiarekin apurtzeko) eskatzen ditu, iraupen berekoak, derrigorrezko zati berarekin, eta % 100ean ordaindutakoak.

Dena den, zabalik geratzen da, lanaren etxekotze-testuinguru batean, ordaindutakoaren araberakoak izan ohi diren eskubide horietatik kanpo geratzen den pertsona kopuruaren inguruko eztabaida.

Esparru hori aurretik aipatutakoekin lotuta dago: batetik, enplegurako sarbideari eta haren kalitateari dagokionez, beste gai bat sartu behar da: nola ekidin orain artea etxean doan egin diren zenbait zainketa lanen airtortza, nolabait deitzearren, *erdi-lan* gisa gertatzea. Hau da, hein batean ordainduak izatea, baina ez behar adina, eta horiekin batera beste sektoreek berezko dituzten berme, baldintza eta eskubide multzoak ez etortzea. Horren adibiderik argiena da *mendetasun legearen* familia ingurunean profesionalak ez diren zainketetarako prestazioa; hala ere, adi zaindu beharko diren bestelako modalitateak sor daitezkeela ere pentsa dezakegu.

Lanaldia murrizteko proposamenei dagokienez, sarritan, horiek babes-ten dituztenek argudiatzen dute horrek *uztartzeko* edota ordaindu gabeko zaintza-lanen banaketa berdintsuagoa egiteko denbora askatzea ahalbide-tuko luketela. Baina, agian, kontrako norabidean ekingo beharko genioke hausnarketari: merkatukoa ez den lana (zainketak, zehazki), emakume, gizon eta gizarte-mailen artean berdintasunez banatuko balira... zenbat denbora izango luke bakoitzak merkatuko lana egiteko? Subjektu batzuk denbora gehiago izango lukete, beste batzuk, gutxiago. Zein eragin izango luke horrek ordaindutako lana berriz banatzeari dagokionez? Merkatuko lana arautzea askoz ere errazagoa bada ere (ez dugu zalantzarik horren inguruan), zergatik pentsatu behar dugu beti bestelako lanetan hondarrezko lan bezala? Merkatura egokitzen den lan bezala (gainera, *doitzeko norabide* hori gizonei emakume askori baino gehiago aplikatzen zaienean)? Galdera horiek gizarte mailazko eztabaidan zabaltzea, gai horiek merkatuko lanaren inguruko eztabaidarako agenda publikoan sartzeari, berez, helburu bat litzateke bere horretan.

5.2.4. Emakume migratzaileen ikuspegi utilitarista

Emakume migratzaileak krisialdiaren aurrean zaugarritasun handienetari-koa duten taldea dira eta, ikusi dugun bezala, haien lan-egoera oso gogorra

da. Oro har, salatzen da atzerritarren legediak pertsona migratzaileak pertsona gisa aintzatesten dituela, soilik lanesku diren heinean. Horren ildotik, esan dezakegu migratzaileak *txanpinoi* langile idiliko gisa ikusten direla: helduak direla etortzen dira, ondorengoak edo familiako beste kideekin elkartzea zailtzen zaie (hau da, lanekoa ez den zamarik ez izatea sustatzen da) eta zahartzaroan haien sorterrria itzultzea sustatzen da. Horren ildotik, atzerritarren legediari kritika feminista gogorra egin zaio. Baina, egoera administratibo erregularra lan-egoerarekin lotzeaz gainera, hori esparru publikoak maskulinizatutako enpleguen erreferentearekin egiten da, izan ere, horren azpian datzan langilearen ideia normalizatuago dauden sektoreetako eta esparru publikoetako gizonezko langilearena baita. Hori horrela, ez da egokitzen feminizatutako sektoreen errealitatera (bereziki, etxeko lanari, etxeko lanaren araubide berezia indarrean zegoenean, eta, inolaz ere ez, lan sexualari).

5.3. Baliabideetara heltzea

Baliabideetara heltzeari dagokionez, mugimendu feministaren baitan, hainbat ikuspegi eta proposamen daude. Horri buruz, eztabaidatan eta iritzian azaldu diren bi gairi heldu behar diegu berriz:

- gaur egun, bizi-kalitatearen eta merkatuan kontsumitzearen arteko lotura estua dago: hau da, baliabide gehienak eskuratzeko modua horiek merkatuan erostea da (metatze-logika nagusi duen merkatuan), baina ekonomia-politikaren helburuetako bat baliabideak sortzeko bestelako mailak sustatzea eta indartzea izan behar da
- merkatuan, baliabideetara heltzeko bide nagusia erosteko almena da (merkatuan onartzen da zerbait behar duzula, hori ordaintzeko gaitasuna baduzu). Sektore publikoan, herritarrak edota aurretik egindako ekarpenak dira bidea. Monetizatuta ez dauden mailatan, beharra zilegitzeko bestelako bideak daude (familia-lotura, gizarte-onarpena, eta abar). Beraz, baliabideak sortzeko eta horietara heltzeko beste maila horiek beharrak aitortzeko bestelako moduak oinarri dituztela pentsa dezakegu.

Esku-hartze bide horrek gizarte-politika atalarekiko koordinazio-maila oso handia izatea eskatzen du. Ekonomia- eta lan-politikak biziera onerako

beharrezkoak diren baliabideetara heltzen laguntzeko edo heltzea bermatzeko hiru bide nagusi proposatzen ditugu:

- **Herritarren oinarrizko errentaren bitartez banako diru-sarrerekin baliabideetara heltzea**, bizitzeko beharrezkoak diren oinarrizko diru-sarrerak bermatzeko modu gisa, berekin pobrezia edota ongizate falta egoera guztiak desagertuko direla ekarriz. Irtenbide horrek bestelako jarduerak egiteko denbora askatuko lukeela, eta norberak bere biziera onaren ideia zein den erabakitzeko askatasun maila handia emango lukeela argudiatzen da. Azken batean, modurik onena estatuak bizitzaren iraunkortasunaren erantzukizuna bere gain har dezan dela defendatzen da. Beste ikuspegi batzuen arabera, aldiz, berriz banatzeko politika nahiko erregresiboa da, berriz banatzearen zama guztia zergen esparruan jarriko lukeelako. Gainera, gastu publikoak oinarrizko errenta unibertsala bermatzeko norabidearen inguruan jarriko luke eztabaida, eta ez kalitatezko zerbitzu publikoak eskatzean edo berdintasun gaietan bestelako gastuak egitean. Beste kritika bat da, proposatzen den hobekuntzak, azken batean, arreta merkatuan banaka kontsumitzean jartzen duela da, bizi-kalitatearen eta kontsumoaren arteko lotura indartuz, hura ezabatu beharrean. Proposamenarekiko kritikoak direnen arabera, eskari oso akitzailea eta mugatua litzateke, eta ez luke bizi-kalitatearen eta kontsumitzeko gaitasunaren arteko lotura etengo, aitzitik, indartu egingo luke.
- **Ordaindutako lanaren bitartez eskuratutako diru-sarrerekin baliabideetara heltzea**. Hemen, arreta, politiken helburu nagusia enplegua sortzea denaren ideian jartzen da, emakumeek lanaldi osoko ordaindutako lanera heltzeko aukera izan dezaten eskatuz (ikus enplegurako sarbideari buruzko eztabaida).
- **Zerbitzu publikoen, eta baliabideak modu kolektiboan kudeatzeko beste moduen bitartez, baliabideetara modu zuzenean heltzea** (Gizartelan-auzolan tradizionala, denbora-bankuak, elikadura subira-notasuna...). Gai horri bizitzaren iraunkortasunari buruzko ardatzean heldu diogu, eta estatuaren aldeko apustua edo baliabideak modu kolektiboan kudeatzeko bestelako moduen aldeko apustua egin behar ote denaren eztabaidara garamatza.

Dauden eztabaidei ekiteko orduan azpimarratu nahi dugun funtsezko gai bat da beti egongo dela tentsioa epe luzean eraldatzeko helburua duten proposamenen, eta epe labur eta ertainean erreformak egiteko proposamenen artean; kontuan izan behar da ere, azken horien orain dauden egoerarik gogorrenen eta korapilatsuenen aurreko erantzunak direla. Politikaren os-tertza, eta sistema ekonomikoak eta gizarteak antolatzeke modua bizitzari eustean eta bizitza berritzean oinarritu behar direla defendatzen badugu, eta gainerako guztia horren mende egon behar dela defendatzen badugu, Astrid Agenjo ekonomialari feministak dion bezala, gizarteari hornitzearen inguruan pentsatu behar dugu, utzi egin behar diogu isolatutako gizabana-koak hornitzeko ideari, eta geure burua ere hori kontua izanda pentsatu behar dugu. Azaldu egin beharko da zeintzuk diren gizarte bakoitzaren interes nagusiak, zein baldintza material eta immaterial behar diren, eta hortik abiatuta, bizitzea merezi duen bizitza zein den epaitu beharko dugu, hori gertatzea ahalbidetuko duten egiturak zein izango diren erabakiz. Horrek guztiak eskatzen du arreta beste inon jartzea, norberaren etekina lortzeko merkataritza-logika gainditzea eta beharrak gizartetik asetzeko pentsatzen hastea.

Berriz adierazi nahi dugu, iradokitako esparru politiko eta kontzeptuarean oinarrituz, eta Gipuzkoako testuinguruan oinarrituz, iradoki ditugun estrategia eta neurriak "eraikuntza" fasean daudela, baina, aurreikusi bezala, Gipuzkoako Foru Aldundiko sailek, emakumeen elkarten mugimenduak, mugimendu feministak eta udalerrietako berdintasun teknikariek berrikusi, eztabaidatu eta birformulatu beharko dituztela.

6. BIBLIOGRAFIA

6.1. Ekonomia feminista

Carrasco Bengoa, Cristina (2005), "La economía feminista: una apuesta por otra economía", Vara, M^a Jesús (koord.) (2005), *Estudios sobre género y economía*, Madril: Akal., 43-62. orr. Jarraian dagoen webgunean eskura daiteke: http://egeneros.org.mx/admin/archivos/economia_feminista.pdf

Picchio, Antonella (2005), "La economía política y la investigación sobre las condiciones de vida", Gemma Cairó i Céspedes eta Maribel Mayordomo Rico (lank.), *Por una economía sobre la vida. Aportaciones desde un enfoque feminista*, Icaria, 177-34. orr. http://geneconomia.ciem.ucr.ac.cr/sites/default/files/documents/Picchio_2005%5B1%5D.pdf

Rodríguez Enríquez, Corina (2010), "Análisis económico para la equidad: los aportes de la economía feminista" SaberEsen, 2. alea, Jarraian dagoen webgunean eskura daiteke: <http://www.fcecon.unr.edu.ar/revista/index.php/revista/article/view/31/62#id.vqsx4-5abxj>

Todaro, Rosalba eta Regina Rodríguez (arg.) (2001) *El género en la economía*, CEM eta ISIS Internacional, 27-38. orr. Jarraian dagoen webgunean eskura daiteke: http://www.isis.cl/publicaciones/ediciones/edi_virtuales/Ediciones_32.pdf

6.2. Genero joerak politika ekonomikoetan

Elson, Diane (2002), "International Financial Architecture: A View from the Kitchen", *Política Feminan*. Jarraian dagoen webgunean eskura daiteke: www.eclac.org/mujer/curso/elson1.pdf

Castro, Carmen eta Bibiana Medialdea García(2010), "La (des)igualdad de género en el sistema de impuestos y prestaciones de España", Pazos Morán, María (zuz.) eta Rodríguez, Maribel (koord.), *Fiscalidad y equidad de género*, Fundación Carolina, Lanerako 13. Dokumentua, 105-39 orr. Jarraian dagoen webgunean eskura daiteke: <http://www.fundacioncarolina.es/es-ES/publicaciones/documentostrabajo/Documents/DT43.pdf>

Girón, Alicia (2006), "Macroeconomía, desarrollo y género", *Revista de Economía Institucional*, 8. bild. (15), 2006ko bigarren seihilekoa, 207-25. orr, jarraian dagoen webgunean eskura daiteke: <http://www.uexternado.edu.co/facecono/ecoinstitucional/workingpapers/agiron15.pdf>

Villota Gil-Escoín, Paloma (2006), "Impacto de la política fiscal en la igualdad de género, estructura impositiva, gastos e ingresos", jarraian dagoen webgunean eskura daiteke: http://www.hegoa.ehu.es/congreso/bilbo/komu/4_Mujeres/5_Paloma-de-Villota.pdf

VVAA (2009), *Mujeres y economías locales, territorios, saberes y poderes*, UNIFEM-MyDEL, Guatemala, <http://www.unifem.org.mx/un/documents/cendoc/economia/ecogen30.pdf>

6.3. Lana / Lanak

Borderías, Cristina eta Carrasco, Cristina (1994): "Las mujeres y el trabajo: aproximaciones históricas, sociológicas y económicas", Borderías, Cristina, Carrasco, Cristina, eta Alemany, Carmen (lank.) (1994): *Las mujeres y el trabajo. Rupturas conceptuales*, Icaria, Bartzelona, 15-109. orr.

Carrasco, Cristina (2009), "Tiempos y trabajos desde la experiencia femenina", *Papeles de relaciones ecosociales y cambio global*, 108. alea, 45-54 orr., <http://www.rebelion.org/noticias/2010/3/101876.pdf>

Carrasco, Cristina, Mayordomo, Maribel, Domínguez, Màrius eta Alabart, Anna (2004): *Trabajo con mirada de mujer. Propuesta de una encuesta de población activa no androcéntrica*, CES, Madril

Durán de las Heras, M^a Ángeles (2011), *El trabajo no remunerado en la economía global*, BBVA Fundazioa.

Hernández Catalán, Rosario (2010), *Pero este trabajo yo para qué lo hago. Estudio sociológico sobre los malestares ocultos de algunas precarias conscientes*, Federación Mujeres Jóvenes. Jarraian dagoen webgunean eskura daiteke: www.educandoenigualdad.com/IMG/pdf/Rosario-Hdez-Catalan.pdf

OPS (2008), *La economía invisible y las desigualdades de género. La importancia de medir y valorar el trabajo no remunerado*, OPS-CEPAL-CSIC, http://www.paho.org/Spanish/ad/ge/Desigualdad_genero.pdf

6.4. Lan-merkatua

Colectivo IOÉ (2001): *Mujer, inmigración y trabajo*, Instituto de Migraciones y Servicios Sociales, Madril. Jarraian dagoen webgunean eskura daiteke: http://www.nodo50.org/ioe/investigaciones_libros.php?op=libro&tid=42

Marugán Pintos, Begoña (2012) "Desfase entre lo teórico y lo empírico. El estudio del empleo en diversos colectivos como ejemplo". *II Jornadas de Sociología de la Asociación Madrileña de Sociología. Crisis y cambios en las sociedades contemporáneas: retos teóricos y prácticos*. 2012ko martxoaren 1 eta 2an, Madril. Jarraian dagoen webgunean eskura daiteke: http://www.feministas.org/IMG/pdf/2-_Begona_marugan.pdf

Rodríguez, Arantxa eta Mertxe Larrañaga (sf), *El trabajo de las mujeres: claves para entender la desigualdad laboral*, Gaikako 2. blokea. 2-2 gaia: berdintasunaren esparru teorikoa, EMAKUNDE http://cdd.emakumeak.org/ficheros/0000/0166/teorico_2_c.pdf

Todaro, Rosalba eta Yáñez, Sonia (2004), *El trabajo se transforma. Relaciones de producción y relaciones de género*, Rosalba Tदारoren hitzaurrea eta Sonia Yáñez-en lehenengo atala, Santiago, Txile: CEM, 35-73 orr., jarraian dagoen webgunean eskura daiteke: http://www.cem.cl/pdf/trabajo_interior.pdf

6.5. Krisialdia

Agenjo Calderón, Astrid (2011), "Lecturas de la crisis en clave feminista: una comparación de la literatura en torno a los efectos específicos sobre las mujeres", *Papeles de European*, 23. lib. 72-102. orr. Jarraian dagoen webgunean eskura daiteke: <http://revistas.ucm.es/index.php/PADE/article/view/37936/36702>

Ezquerria, Sandra (2010) "Visiones feministas y anticapitalistas ante las crisis" HEGOA/ACSUR-Las Segoviasen (2010), *Actas del Encuentro: Feminismos en la Agenda del Desarrollo*, Bilbao. Jarraian dagoen webgunean eskura daiteke: http://www.acsur.org/IMG/pdf/Actas_Encuentro_Feminismos.pdf

Ezquerria, Sandra (2011), "Miradas feministas a los efectos de la crisis", *VIENTO SUR*, 114. alea/2011ko urtarrila, 91-98 orr., jarraian dagoen webgunean eskura daiteke: http://www.vientosur.info/articulosabiertos/VS114_Ezquerria_Miradas.pdf

King, Richard and Caroline Sweetman (2010), "Gender Perspectives on the Global Economic Crisis", *Oxfam International Discussion Paper*, jarraian dagoen webgunean eskura daiteke: http://www.oxfam.org.uk/resources/policy/economic_crisis/downloads/dp_gender_perspectives_gec_020210.pdf

Larrañaga, Mertxe (2009), "Mujeres, tiempos, crisis: Combinaciones variadas". *Revista de Economía Crítica*, 8. alea, 113-120 orr., jarraian dagoen webgunean eskura daiteke: http://www.revistaeconomicacritica.org/sites/default/files/revistas/n8/6_mujeres_tiempos.pdf

Larrañaga, Mertxe, Yolanda Jubeto, M^a Luz de la Cal, (2011), "Tiempos de crisis, tiempos de des-ajustes, tiempos precarios, tiempos de mujeres", *Revista Investigaciones Feministas*, 2. lib., 95-111 orr., <http://revistas.ucm.es/index.php/INFE/article/view/38606/37331>

6.6. Zorra, murrizketak eta doiketak

León T., Magdalena(2010), "Deudas y crisis: aproximaciones feministas desde el sur", HEGOA/ACSUR-Las Segoviasen (2010), *Actas del Encuentro: Feminismos en la Agenda del Desarrollo*, Bilbao. Jarraian dagoen webgunean eskura daiteke: http://www.acsur.org/IMG/pdf/Actas_Encuentro_Feminismos.pdf

Marty, Christiane (2011), *Razones para indignarse y movilizarse. Impacto de la crisis y la austeridad sobre las mujeres*, jarraian dagoen webgunean eskura daiteke: <http://www.cadtm.org/Impacto-de-la-crisis-y-la>

Sonia Mitralias (2012), *La urgencia de un movimiento de mujeres autónomo contra la deuda y las medidas de austeridad en Grecia*, jarraian dagoen webgunean eskura daiteke <http://www.cadtm.org/The-urgency-of-an-independant>

6.7. Genero-sentiberatasuna duten aurrekontuak

Addabbo, Tindara (2008), *Capability Approach and Gender Budgeting: Methodological issues and applications*, CAPP-CHILD-RECent, jarraian dagoen webgunean eskura daiteke: http://www.gender-budgets.org/index.php?option=com_joomdoc&task=doc_download&gid=389&Itemid=189

Jubeto Ruiz, Yolanda (2006), *Los presupuestos con perspectiva de género, la Nueva Gestión Pública y el federalismo fiscal, Existe una correlación positiva para las mujeres. Apuntes para la reflexión*, X Jornadas de Economía Crítica egindako hitzaldia, Bartzelona, martxoaren 23-25ean. Jarraian dagoen webgunean eskura daiteke: www.ucm.es/info/ec/jec10/ponencias/506Jubeto.pdf

Picchio del Mercato, Antonella (2009), "Condiciones de vida: Perspectivas, análisis económico y políticas públicas" *Revista de economía crítica*, 7. alea, 27-54. orr. Jarraian dagoen webgunean eskura daiteke: http://revistaeconomicacritica.org/sites/default/files/revistas/n7/2_condiciones_de_vida.pdf

Villota Gil-Escóin, Paloma de (2011), "Aplicación de la Teoría de las Capacidades al análisis de impacto de género en los presupuestos", *Presupuesto y Gasto Público*, 64/2011: 81-98, jarraian dagoen webgunean eskura daiteke: http://www.ief.es/documentos/recursos/publicaciones/revistas/presu_gasto_publico/64_Villota.pdf

6.8. Propuestas políticas

Agenjo Calderon, Astrid eta Cristina Santillan Idoate (argitaratze dago), *Los derechos económicos de las mujeres: una economía sobre la vida. Discursos y prácticas en Nicaragua, el Salvador, Bolivia y estado español*, ACSUR-Las Segovias. Laster jarraian dagoen webgunean eskuratu ahal izango da: www.acsur.org

Antonopoulos, Rania (2007), "The Right to a Job, the Right Types of Projects: Employment Guarantee Policies from a Gender Perspective", *Levy Economics Institute Working Paper* 516. aleaJarraian dagoen webgunean eskura daiteke: http://papers.ssrn.com/sol3/papers.cfm?abstract_id=1016197

Espino, Alma (2005), "Un marco de análisis para el fomento de las políticas de desarrollo productivo con enfoque de género", *Serie Mujer y Desarrollo*, 77. alea, Txileko Santiago, jarraian dagoen webgunean eskura daiteke: <http://www.eclac.org/publicaciones/xml/6/23666/lcl2437e.pdf>

Jain, Devaki eta Elson, Diane (2010), *Vision for a better world: from economic crisis to equality*, UNDP Gender Team, jarraian dagoen webgunean eskura daiteke: http://www.devakijain.com/pdf/jainelson_fromcrisis.pdf

WAA (2011), *Alternativas Económicas para la Justicia Social y de Género. Voces y Visiones desde América Latina*, WIDE, jarraian dagoen webgunean eskura daiteke: <http://62.149.193.10/wide/download/EC%20ALT%20SPAN.pdf?id=1484>

7. BALIABIDEAK SAREAN

http://www.emakunde.euskadi.net/u72-20010/es/contenidos/informacion/pub_informes/es_emakunde/adjuntos/pres_pub_clave_genero_es.pdf

Genero-sentiberatasuna duten aurrekontuak ezartzen laguntzeko artikuluen bilduma ona, teorikoak (ekonomiaren ikuspegi feministak), aplikazio zehatzei buruzkoak eta politiken gneero-joeren analisei buruzkoak. Ez daude artikuluen osoak, horien laburpenak baizik. EMAKUNDE

<http://www.wide-network.org/index.jsp?id=32>

Women in Development in Europe GKEren webgunean hainbat argitalpen eta baliabide eskura daitezke, garapenaren ikuspegi orokorrarekin lotutako hainbat gaietarako buruz, denak ikuspegi feministarekin egindakoak. Horretaz gainera, ekonomian alfabetatzearen inguruko baliabideak dituen atal bat dago. Gehienak ingelesez daude

www.dawnnet.org

DAWN (Development Alternatives with Women for a New Era) hegoaldeko akademiko, ikertzaile eta aktibista feministen sarea da, ekonomia- eta genero-justiziaren alde lan egiten duena. Webgunean ikertzeko, prestakuntzarako eta politikan eragina izateko baliabideak daude. Ingelesez

<http://www.iaffe.org/>

Ekonomia feministaren nazioarteko elkarteak munduko hainbat lekutako ekonomialariak biltzen ditu. Webgunean gertakizunetarako deialdiak eta hiru hilean behingo buletina daude. Feminist Economics aldizkaria (gaur egun gai honen inguruan, mundu mailan, erreferentziazkoa den aldizkaria da) ordainduz eskura daiteke. Ingelesez

<http://www.gemlac.org/>

GEM LAC (género y macroeconomía en América Latina) eskualdeko ekonomialari feministen elkarteak da. Haien plataforma birtuala da, Latinoameriketako Ekonomia Feministarekin lotutako gaien berri emateko eta horiek ezagutzera emateko gunea. Hainbat atal ditu: "Baliabideak" (Ekonomia Feministarako

interesgarriak diren erreferentzien funtsezko zerrenda, posible denean, artxiboetarako sarbidea), "Albisteak" (eskualdean gertatzen diren eta ekonomia feministaren ikuspegitik interesgarriak diren gertakizunak), "Ikerlanak" (egun egiten ari diren edo duela gutxi amaitu diren ikerlanen katalogoa), "Berritasunak" (eskualdean zein munduko beste lekuetan egingo diren hitzaldi, ikastaro eta bestelako jarduera interesgarriei buruzko informazioa) eta "Estekak".

<http://www.genderwork.ca/index.html>

Lanari eta generoari buruzko datu-basea (gaiak: osasuna zaintzea, migrazioa, enplegu ezegonkorra, teknologia, sindikatuak eta ordaindu gabeko lana). Hainbat ezaguera maila eta behar dituzten ikertzaileei zuzendua. Liburutegia, thesaurusa eta estatistika oinarria ditu.

www.movimientos.org/remte

Red Latinoamericana de Mujeres Transformando la Economía izeneko sarea 1997an sortu zen, emakumeek ekonomiaren jabetza kritikoa egin zezaten laguntzeko asmoz, horretarako ideiak, eztabaidak, ekintzak eta ekimen politikoak sortuz. Latinoamerikako eskualdeko hamaika herrialdetako sareak eta gunek egituratzeko gunea da, hiri- eta landa-inguruneetako, esparru akademikoko, GKEtako eta oinarritzko erakundeetako emakumeen parte hartzea duena. Webgunean azterlanak, jarrerak, argitalpenak eta erakundeak herrialde bakoitzean dituen harremanetarako pertsonak aurki ditzakegu.

<http://web.igtn.org/home/>

Red Internacional de Género y Comercio izeneko sareak genero gaien adituak diren emakumeak biltzen ditu, eta generoaren eta merkataritzaren inguruko informazio teknikoa ematen diete emakumeei, GKEei, gizarte-mugimenduei eta gobernuei. Katalizatzaile politiko gisa ere jarduten dute, ikuspegi kritiko feminista sustatzeko eta merkataritzarekin eta globalizazioarekin lotutako ekintza globalak sustatzeko. Hegoaldetik zuzentzen den sarea da, Hegoaldea/Iparraldea elkarlana eraikitzen duena, ikuspegi feminista kritikotik demokratikoagoa eta bidezkoagoa den politika lortzeko helburuz. Webgunean hainbat argitalpen eta baliabide daude (politikan eragina izateko, ikerketak eta prestakuntza). Internet bidezko prestakuntza jarduerak ere eskaintzen ditu. Baliabide gehienak ingelesez daude.

www.generoycomercio.org

IGTNren atal latinoameriketarra da. Ikerketa, gaikuntza eta eraginerako materialak ditu.

<http://www.presupuestoygenero.net/>

Genero-sentiberatasuna duten Aurrekontuen inguruan, gaztelaniaz egindako, dokumentatutako eta eguneratutako kudeaketa, ezagutza eta trukerako plataforma bat da, Latinoameriketako eta Karibeko bizipenetan arreta berezia jartzen duena.

<http://www.gender-budgets.org/>

Gender Responsive Budgeting NBE Emakumeak gaiari zuzenduta duen webgunea da. Genero-sentiberatasuna duen aurrekontuak ezartzeko tresnak ematea, eta hainbat herrialdeetako informazioa eta esperientziak partekatzea du helburu. Ingelesez

http://ec.europa.eu/europeaid/where/latin-america/regional-cooperation/urbal/index_es.htm

Urbal Lankidetzarako Eskualdeko Programa. Europar Batasunaren Urb-AI programaren webgunea da, tokiko taldeen artean tokiko hiri-garapenarekin lotutako gai eta arazo zehatzak jorratzeko dezentralizatutako lankidetzaren sareak garatzea du helburu. 1995ean hasi zuen ibilbidea. Webgunean argitalpenak eta egindako proiektuei (188) buruzko informazioa dago.

